ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2007ko irailaren 10a > Astelehena > III. urtea > 157. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Familien erosketa gaitasunean du eragin zuzena etxeen garestitzeak"

**Lander Beloki** Ekonomian aditua > 06

**G2a** Aby-Kem taldeak gertu dauka lehen diskoa > 23

**ARRASATE** Sei udal lanpostu eta Euskaltegian bi lan poltsa daude betetzeko > 10

**BERGARA** Kilometroak jaian, hogeitik gora musika talde eta bakarlari > 11

**MUSIKA** Radio Wings taldeak despedida kontzertua egin zuen > 27

**EKONOMIA** > LANA

## Abuztuan, 65 langabe gehiago

Abuztua 1.545 langaberekin bukatu da ibarrean, 4,99ko tasa, hain zuzen > 04

**KIROLA** > FUTBOLA

## Emaitza ezberdinak liga hasteko

Ibarreko taldeek emaitza ezberdinak lortu dituzte preferente mailako lehen jardunaldian.

Hala, UDAk 2-0 galdu zuen Vasconiaren aurka. Halaber, Aloñak puntu bakarra eskuratu zuen Aurrera taldearen aurka (1-1). Hala, garaipen bakarra Mondrak erdietsi zuen; Idiazabalen aurka, 0-1 irabazi zuten. > 15-16

**HISTORIA** > EZTABAIDA

## Lope Agirre Aramaiokoa zela diote

Konkistatzaileen jatorria misterioa da oraindik > 09

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32



**MEZA** Juan Maria Uriarte, Donostiako gotzaina, meza esaten.
JOSETXO ARANZABAL

**ERLIJIOA** > ARANTZAZUKO AMA BIRJINAREN EGUNA

# "Bakegintza ez da aukera bat", esan zuen Uriartek Arantzazun

**OSPAKIZUNA** Erromes asko eta EAEko erakunde guztietako ordezkariak egon ziren Oñatin

**HOMILIA** Uriarte gotzainak esan zuen bakearen alde egitea fedearen eskakizuna dela

**PRESOAK** Euskal presoen aldeko elkarretaratzeak egin zituen Etxeratek Arantzazun > 05

**KIROLA** > MENDIKO BIZIKLETA IRTEERA

## Gatzagako bizikleta irteeran, 180 lagun atzo

Parte-hartzaile asko izan zituen Leintz Gatzagako V. Mendiko Bizikleta Irteerak: hain zuzen, 180 lagun ibili ziren, horietatik 150 helduen irteeran, eta gainontzeko 30ak, gaztetxoenean. Gatzagako zein Debagoien osoko zaleak joan ziren. Denendako opariak egon ziren bukaeran.

Andra Mari jaien barruan egin zuten irteera. Oro har, jai arrakastatsuak izan dira. > 21



JOSETXO ARANZABAL

**EUSKARA** > EUSKALTEGIAK

## Gertu daude Udal Euskaltegiak

Ibarreko Udal Euskaltegiek ere ikasturte berriari ekingo diote. Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzakoek euren eskaintzaren berri emango dute bihar, eta Bergarakoak, datorren martitzenean. > 05



**ETXEBIZITZA** Elixabet eta Ianire hirugarren lagun batekin bizi dira Oñatin, unibertsitatetik oso gertu dagoen etxe batean; etxebizitza osatzeko laugarren kide baten bila ari dira. IRATI AGIRREAZALDEGI

**HEZKUNTZA** > IKASKETAK ETXETIK KANPO

# Ikasleek, etxetik kanpo, egoitza edo etxe partekatua dute aukerako

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Asko dira gure ibarrera kanpotik ikastera etortzen diren gazteak. Arrasatera, Eskoriatzara eta Oñatira unibertsitatera datozenetatik askok ikasi bitarteko egonaldia ere ibarrean egiten dute.

Beste ikasle batzuekin partekatutako etxebizitzak edo ikastetxe nagusiak izan ohi dira aukerarik ohikoenak.

### HIRU URTEZ OÑATIN

Iazko ikasturte amaieran gainditu gabe utzitako ikasgaien azterketak egiten hasiak dira ikasleak, eta etxean zein egoitzan topatu ditugu. Berandu dabiltzanendako, hauxe da etxebizitza bila jarduteko edo oraindik ikastetxe nagusian hutsik dagoen oheren bat bere egiteko sasoia.

Oñatiko San Lorentzo auzoan egin genuen hitzordua Markinako Elixabet Olabarria eta Bilboko Ianire Goirirekin egubakoitzean. Eteoko atarian elkartu eta unibertsitate aldamenean bertan duten etxebizitzan kontatu zizkiguten euren gorabeherak.

Hirugarren ikasturtea hasiko dute aurki, eta hiruretan, ikasle etxebizitza partekatu dute. "Lehenengo ikasturtean, Atzeko kalean egon ginen, eta iaz eta oraingo kurtsoan, San Lorentzon", esan digu Ianirek.

"Elgoibarren ikasten ari ginela ezagutu genuen elkar. Hirugarren ikasturtetik aurrera, Oñatira etorri behar genuen, eta egunero joan-etorrian ez ibiltzearren erabaki genuen elkarrekin ikasle etxebizitza batera etortzea. Elkar ezagutu ezean, beharbada lehen urtean erresidentziara etorri izango ginatekeen", dio Elixabetek.

Ianirek, epe laburrean bada ere, probatua du ikastetxe nagusi bateko bizimodua, baina ordutegien kontua oso zorrotza iruditu zitzaion. Horretan ere, askotarikoak daude eta badira irekiagoak direnak.

**Arrasaten eta Oñatin, ikasleek etxebizitzako 600-700 euroko errenta ordaintzen dute hilean**

**Etxea partekatzeak lanak egiten, dirua kontrolatzen eta elkarbizitzen erakusten die ikasleei**

Lehen ikasturtean, hiru lagun bizi ziren elkarrekin; bigarrenean, bost, eta hastear den ikasturterako, hiru lagun daude, baina laugarren baten bila dihardute.

### MERKEA ETA ONA

Etxe bila hasita, zein esperientzia izan dituzten ere galdetu genien. "Lehenengo urtean, garaiz ibili ginen. Ez genuen Oñati ezagutzen, eta kartelak ipini genituen. Deitu zigun lehen etxe jabeari baietz esan genion", dio Ianirek. Hurrengo urtean ere ipini zituzten kartelak, eta etxe jabeekin baino gehiago, beste ikasle batzuekin egin zuten kontaktua. "Eurek orain bizi garen etxea aurkitua zuten, eta bostok partekatzea erabaki genuen", dio Elixabetek.

Prezioak ere izan ditugu hizpide: "Gure ikaskideek hilabeteko 600 euro inguru ordaintzen dituzte hiru logelako etxebizitza baten truke. Guk zorte ona izan dugu, lau logela dituelako eta merkeagoa delako, gainera", esan digu Ianirek. Elixabeteren hitzetan, "lehen urteko etxea egoera kaskarragoan zegoen. Lagunen ikasle etxebizitzak ere ezagutzen ditugu, eta gurea onenetarikoa da. Jabea ere oso ondo portatu da gurekin, eta altzariak utzi dizkigu, gauzak berritu ditu-eta etxean".

Arrasaten ere, ikasle etxebizitzen errenta hilabeteko 600 eta 700 euroren bueltakoa da. Oraindik etxe bila dabiltzanek Mondragon Unibertsitatearen webgunean (*www.mondragon.edu/zerbitzuak/ostatua*) aurki ditzakete etxebizitza eskaintzak, eta baita eskariak ere etxebizitza partekatu nahi dutenek.

### LANA ANTOLATU

Ikasi eta, etxera joanda, gurasoen presiorik ez, pentsa dezake askok; baina, gurasoak ez egon arren, etxeko lanak ez dira berez egiten, eta horretarako antolaketa berezia behar da: "Komunak

garbitzeko eta sukaldean jarduteko txandaka egiten dugu, eta logela bakoitzak berea txukuntzen du. Astean zer jango dugun jakiteko ere egutegi modukoa prestatzen dugu, eta erosketak astean behin egiten ditugu denon artean", kontatu digu Ianirek.

Etxean amak egiten dituenak ikasle etxean norberak egin beharra ez dute gustuz hartzen, eta ikasteko duten denborari etxeko lanetarako erabili beharrekoa kendu behar diete. Elixabetek azaldu digunez, "gure kasa bizi izaten ikasi dugu. Etxeko lanak egiteaz gain, diru kontuak eramatea, elkarbizitza probatzea... Oso aberatsa da norberarengandik ezberdina izan daitekeen jendearekin bizitzea, eta alde on asko ditu etxetik kanpo ikasle lagunekin bizitzeak".

Askatasuna da ikasle hauek horrela bizitzeari aurkitu dioten alderik onena, eta jendeari gomendatuko liokete euren modura bizitzea. Aurtengoa dute azken ikasturtea, eta penaz utziko dute Oñatiko etxea.

**IKASTETXE NAGUSIAN, GUSTURA**

Eteoko ikasleak utzi eta Arrasateko Biteri ikastetxe nagusira jo dugu. Iraileko azterketekin burubelarri dabiltza ikasleak, eta han aurkitu genituen Nagore Apodaka bilbotarra eta Iñaki Badiola lekeitiarra.

Nagorek bigarren ikasturtea du Biterin: "Lehenengo urtean pentsatu nuen etxetik kanpo, inor ezagutu gabe... egokiena zela hona etortzea. Aurten errepikatzea erabaki dut, iaz oso gustura egon nintzelako: lagun asko egin nituen, ikastetxe nagusiak antolatutako ekintzetan hartu nuen parte… Gainera, nire lagunak ere hemen geratu dira".

Ikastetxe nagusiko instalazioei buruz galdetuta, Nagorek nahiko ondo daudela esan digu. "Iaz, hiru laguneko logelan nengoen, eta gela beste bi ikaslerekin partekatzea zailagoa zen; aurten, bikoan, gusturago nago". Ikasle etxeekin alderatuta, antolamenduan bada ezberdintasunik, txikiak izan arren. "Bakoitzak bere logela txukuntzen du. Jateko, jangelara joaten gara, baina asteburuan bertan geratuz gero, guk prestatu behar izaten dugu janaria", diosku Nagorek.

**IKASKIDEEKIN ELKARBIZITZA**

Nagorek ikastetxe nagusian bizitzeari ikusten dion alderdi onetako bat da jende asko ezagutzen dela. "Gainera, ikaskideak elkarrekin bizi gara eta, zalantzaren bat izanez gero, eurengana jo dezaket". Alde txarren artean esan digu, beharbada, independentzia gutxiago dutela ikasle etxebizitzetan bizi direnen aldean. "Ixteko ordua dago, eta egunen batean festarako gogoa izan dezaket, baina hurrengo egunean eskolara joan behar naizenez, ordu biak nahikoa da. Baliteke egun bereziren batean lagunen baten ikasle etxean ere geratzea. Izan ere, hemen ezagututako lagun batzuk partekatutako ikasle etxebizitzetan bizi dira orain".

Badu Biterik beste alde txar bat, Nagoreren ustez: "Beti, asteburu guztietan, ezin gara ikasleok bertan geratu. Pisuzko arrazoi bat izan behar da horretarako: azterketetarako ikasi beharra, oso urruti bizi izatea...", azaltzen du ikasle horrek.




IKASTETXE NAGUSIAN Iñaki Badiolak hirugarren ikasturtea du Biterin; Nagore Apodakak, bigarrena. I.A.

**Lehen aldiz datozen ikasle askok aukeratzen du ikastetxe nagusia**

**Egoitza etxebizitza baino garestiagoa da, baina zerbitzu asko eskaintzen du**

**LEHENENGO KURTSOKOAK**

Iñaki Badiolak bi urte eman ditu Biteri ikastetxe nagusian, eta aurten hirugarren ikasturtea hasteaz bat, monitore kargua ere hartu du, eta bertan bizi izaten jarraituko du.

Ikastetxe nagusira jotzen duten ikasle gehienek ziur izaten dute bertan geratuko direla. Etxebizitza baten bila doazenek beste bide batzuk jorratzen dituzte. Datu zehatzik ez duten arren, Iñakik esan digunez, "ikasle gehienak lehenengo kurtsoetan ikastetxe nagusira etortzen dira, eta pixkanaka karreran aurrera joan ahala, batzuek etxebizitza batera joateko pausoa ematen dute; hiru urte baino gehiago gutxik ematen dituzte egoitzan".

Ibarrekoak joan-etorrian ibiltzen dira, eta ostatu bila datozen gehienak Bilbo edo Donostia aldekoak direla esan digu Iñakik. "Gasteiztik, gutxiago, autobusak ordutik ordura daudelako".

Ikasleek ikastetxe nagusira zeren bila jotzen duten galdetuta, zera esan digu Iñakik: "Hasierako jauzia emateko beldur horren aurrean, konfiantza ematen diela dirudi. Hala ere, ikasi nahi duenak berdin ikasiko du ikastetxe nagusian zein partekatutako etxean, eta alderantziz, nahi ez duenak ez du inon ikasiko".

Gurera kanpotik datozen ikasleendako, ostaturako nahikoa aukera dagoela uste du Iñakik. "Biterin, esaterako, aurtengo ikasturtean oraindik badauzkagu gelak hutsik".

**EKINTZA AUKERA ZABALA**

Jendeak, beharbada, izan dezake Biteri bezalako egoitzen gaineko ikuspegi itxia, baina, Iñakiren ustez, oker daude. "Egoitza hutsa balitz, jan, lo eta ikasi baino ez litzateke egingo. Ikastetxe nagusia da gurea, ordea, eta ekintza asko egiten dira: tertuliak, ikastaroak, irteerak, jaiak... Gainera, bertako egoiliarrok komisioak sortzen ditugu ekintzak bideratzeko: dantza, bideoa..." Ordutegia zorrotza da, batzuen ustean. 02:00etan ixten dira ateak, eta jangelan ordutegi zehatza dago jatorduetarako. Baina hori ez da oztopoa Iñakirendako.

Iñakik aitortu digu hiru urteotan inoiz izan duela ikasleekin partekatutako etxe batera joateko tentazioa, baina azkenean, Biterin geratu dela. "Lehen urteko esperientziaren ostean, bertan geratzea erabaki nuen, eta urte hura ere positiboa izan zenez, aurten ere bertan nago. Gerta liteke lehen urtean sartutakoek alde egitea ere, baina lagun berriak egiteko aukera dago hemen".

Prezio kontuak ere aipatu dizkigu Iñakik; zifrarik eman gabe, baina. "Etxebizitza baino garestiagoa da, 150-200 euro gehiago, gutxi gorabehera, baina kontuan hartu behar da jatekoa egina dugula, ikasteko guneak ditugula, ekintza eskaintza zabala... Aprobetxatzen jakinez gero, errentagarriagoa da".

Batean zein bestean, norbere etxetik kanpo. Bada bizimodu hori beste karrera bat ikastearekin parekatzen duenik ere.

Unea aukeratzea,
denbora aurreztea da.
Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:
azpeitia 943 150 510
zarautz 943 894 999
bergara 943 767 058
www.bastidasukaldeak.com

bastidasukaldeak

EUSKARA > UDAL EUSKALTEGIAK

# Ikasturte hasiera Udal Euskaltegietan

Arrasate eta Leintz Udal Euskaltegiek bihar, martitzena, emango dute euren eskaintzaren berri

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Udal Euskaltegiek gertu daukate 2007-2008 ikasturterako eskaintza, eta berau jakinaraziko dute prentsaurrekoan datozen egunetan. *Egizu euskaraz! Nahi baduzu… egingo duzu* da aurten kanpainarako aukeratu duten leloa.

Hala, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udal Euskaltegiek batera aurkeztuko dute euren ikasturtea. Bihar, martitzena, egingo dute prentsaurrekoa Arrasaten, Kulturaten, 11:00etan. Besteak beste, Gipuzkoan zabalduko duten kanpainaren berri emango dute. Karmele Agirregabiria eta Amaia Arana Leintz eta Arrasateko euskaltegietako arduradunak, eta Inaxio Garro eta Ino Galparsoro Aretxabaletako eta Arrasateko alkateak egongo dira.




Kanpainako irudia. ARTEMAN

**MATRIKULAZIO EPEA, ZABALIK**

Bergarako Udal Euskaltegiak hurrengo martitzenean, hilak 18, egingo du bere ikasturtearen aurkezpen ekitaldia.

Edozein modutan, matrikula egiteko aukera dagoeneko zabalik dago ibarreko udal euskaltegietan; baita Oñatiko udal euskaltegian ere –azken horrek ez du aurkezpen berezirik egingo.

KOOPERATIBA > MCC

## Enpresendako lehiaketa egin du Tolosaldean MCCk

Obeki Innove enpresak irabazi du MCCk Tolosaldean egin duen sariketa aitzindari hori

L.K. > ARRASATE

Tolosaldeko udalek osatzen duten eskualdeko garapen agentziak (Tolosaldea Garatzen) eta Mondragon Corporacion Cooperativak abenduan abian jarritako Tolosaldea Garatzen-MCC Enpresa Ekimen Berritzaileak Sortzeko Lehenengo Lehiaketak badu proiektu irabazlea: Obeki Innove enpresak hiru paladun aerosorgailuak ekoizteko aurkeztutakoa, hain zuzen.

Lehiaketan guztira bederatzi proiektuk hartu dute parte. Saria enpresa berria sortzeko Tolosaldea Garatzenek emandako doako aholkularitzan eta 24.000 euroko laguntza ekonomikoan datza.

Eskualdean aintzindari den ekimen hori MCCk alor honetan eskualde horretan egin duen lehena da, eta Tolosaldean enpresa jarduera berritzailea eta teknologikoa bultzatzeko egin dute.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

EKONOMIA > LANA

# Uztaila baino 65 langabe gehiagorekin amaitu zen abuztua

Abuztua hilabete txarra izan da enplegu arloan Hego Euskal Herrian; Debagoienean ere, langabezia hazi egin da hilabete horretan

Hilabeteko langabezia tasa 4,99koa da; apirilaz geroztik, datu txarrena da, baina urte hasierakoa (5,83) baino hobea

L.K. > BERGARA

Abuztua hilabete txarra izan da enplegurako Gipuzkoan eta Hego Euskal Herri osoan. Debagoienean ere, uztailean baino langabe gehiago utzi ditu abuztuak: 1.545 lagun INEMen izena emanda (4,99 da langabezia tasa), aurreko hilean baino 65 gehiago (4,78 izan zen uztaileko langabezia tasa).

Herriz herri, Arrasaten ez beste herri guztietan igo zen INEMen izena emandakoen kopurua. Igoera handiena Antzuolak izan zuen: 40 langabetik 55era pasa zen, 4,40ko tasatik 6,04kora, hain zuzen.

Horrenbestez, ibarreko datu txarrena Antzuolak dauka, 6,04 da-eta Debagoieneko langabezia tasarik altuena. Baxuena Gatzagak dauka (0); bigarrena, Oñatik (3,59; datu absolutuetan, 194 langabe).

Leintz Gatzagan ez da langaberik erregistratu, uztailean bezala. Bakarrik Arrasaten jaitsi da zertxobait kopurua: enplegu bulegoan izena emandako 611 lagun izatetik 607ra pasatu da marka, hain zuzen ere.

Abuztuko langabezia tasa ez da, inondik inora, urteko txarrena: otsailekoa da hori, orain arte, 5,87ko tasa eta 1820 langaberekin, abuztuan baino 275 gehiago. Urte hasiera txarra izan zen enplegurako, 1.808 langabe zeuden-eta urtarrilean INEMen apuntatuta.

Daturik onena ekainari dagokio. Hilabete horretan, Debagoienean 1.408 langabe erregistratu zituen INEMek, 4,54ko langabezia tasa.

Azkenik, aipatu behar da herri batzuetan langabezia igo egin dela urte hasieratik: Antzuolan eta Elgetan. Gainerako herri guztietan, datuak hobeak dira orain urte hasieran baino.

**Langabezia tasa abuztuan**

| HERRIA | TASA |
|---|---|
| Antzuola | 6,04 |
| Aretxabaleta | 4,93 |
| Arrasate | 5,25 |
| Bergara | 5,46 |
| Elgeta | 4,47 |
| Eskoriatza | 5,58 |
| Leintz Gatzaga | 1.440 |
| Gatzaga | 0,00 |
| Oñati | 3,59 |
| **Batezbestekoa** | **4,99** |

**HEGO EUSKAL HERRIAN**

Langabezia datuak txarrak izan dira Hego Euskal Herrian. Hala, abuztuan zehar 3.482 langabe gehiagok eman zuten izena INEMen; horrek esan nahi du hilabete horretan %3,76 igo zela langabezia Hego Euskal Herrian.

Gipuzkoan, 641 langabe gehiago egon da abuztuan, %2,92ko igoera. Euskal Autonomia Erkidego osoan, igoera hori 3.290ekoa izan zen; hala, abuztu bukaeran, 75.514 langabe zeuden izena emanda INEMen. Gipuzkoak izan du EAEko daturik onena;Araban, langabezia %6,29 igo zen, eta Bizkaian, %5.



JOSETXO ARANZABAL

**Kanpai-jole eskola aurkeztu dute Aretxabaletan, Areantza auzoan**

Aretxabaletako Areantza auzoan, kanpai-jole eskola martxan jarri dute, eta eskola bera eta erabiliko dituen materialak aurkeztu zituzten joan den egubakoitz iluntzean, auzoko jaiak direla aprobetxatuta.

Argazkian, Areantzako elizan egin zuten aurkezpena ikusten da. Hain zuzen, material didaktikoa ikus-entzunezko formatuan dago, eta Oihan Vega musikariak idatzi ditu grafikoak eta partiturak; horiek publikoari erakusten zebiltzan momentua jasotzen du argazkiak.

**ERLIJIOA** > ARANTZAZUKO AMA BIRJINAREN EGUNA

# Bake bideak asmatzeko eta gauzatzeko dei egin zuen gotzainak Arantzazutik

Juan Maria Uriartek gogoa eta kemena eskatu zituen, "labur geldituko litzatekeelako erakundeen lana herria ikusle hutsa balitz"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

Gipuzkoako zaindari Arantzazuko Ama Birjinaren egunean jendez lepo izan ziren Arantzazuko basilika eta inguruak. Eusko Jaurlaritzako, Batzar Nagusietako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oñatiko Udaleko ordezkariekin batera, txoko askotatik bertaratu ziren fededunak atzo.

Goizean goiz hasi ziren erromesak iristen Arantzazura. Hamabietako kanpaiekin eta Oñatiko txistularien doinuekin sartu ziren agintariak eta alderdi politikoetako beste kide ezagun batzuk basilikara; besteak beste, Miren Azkarate, Rafaela Romero, Markel Olano, Esther Larrañaga, Eneko Goia, Jose Ramon Beloki, Pello Gonzalez, Lurdes Idoiaga eta Oñatiko Udaleko zinegotziak. Gotzainak esandako meza entzun zuten.

Gotzainaren hitzetan, "herritar eta kristau batentzat, bakegintza ez da beste aukera batzuen artean aukera bat. Amorruagatik, utzikeriagatik edo etsipenagatik bakearen alde ahal duena egiteko prest ez dagoenak ez du kristau fedeak eskatzen diona betetzen. Bakoitzak bere eremuan bakearekiko zorra ordaindu behar dugu". Hauxe gaineratu zuen: "Bake bideak asmatzea eta gauzatzea izan behar da herriaren ordezkari eta alderdi politiko guztientzat ezinbesteko ardura". Bestalde, esan zuen erakundeen eta taldeen egitekoa urria dela herria ikusle geldoa bada bakegintzan.

**ETARI ESKARIA**

Bakea hizpide izan zen egunean, agintariek ETAren komunikatuaz hitz egin zuten. Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako eledunak hauxe esan zuen: "ETAk lehengo lepotik du burua. Borrokan jarraitu behar du. Bost axola zaio gizarteak zer esaten duen, beretzat hartuta dauka herri honen ordezkaritza eta ez dakit noiz konturatu behar diren herri honek ez dituela nahi".

Markel Olano Gipuzkoako Aldun Nagusiak esan zuenez, "ETAri eskatzen diogu behin betiko armak utzi ditzala eta hori komunikatu batean adierazi dezala. Hori da gure herriaren normalizazio politikorako eta bakerako ezinbesteko eskaria".

**GIPUZKOARRON EGUN BEREZIA**

Markel Olanok Arantzazuko Ama Birjinaren eguna bera ere hartu zuen ahotan: "Gipuzkoarrontzako seinalatua da, eta sentsibilitate bereziarekin bizi dugu Arantzazuko Amaren eguna. Arduraz etortzea tokatu arren, biak nahasten dira: ardura eta norbere barrua".

Lurdes Idoiaga Oñatiko alkatea ere gogotsu izan zen Arantzazun: "Guretzat txikitatik izan da berezia Arantzazura etortzea Ama Birjinaren egunean; bai ospakizun modura eta baita sentimendu modura ere. Udalean nagoenetik, hurbilagotik bizi ditut jendearen pentsamendu eta adierazpenak. Hala ere, oñatiar denontzat alkate izan ala ez izan, berezia da egun hau".

Ama Birjinari egun berezi horretan bakea eskatu ziola esan zigun Oñatiko alkateak: "Herri honek bakea merezi du, eta eskatu dut denok izan dezagula gaitasuna, bakoitzak bere tokitik eta inori errurik bota gabe, eta besteei bakarrik eskatu gabe bakerantz pausu bat emateko. Hori lortzea da nire esperantza".



**AGINTARIAK** Batzar Nagusietako, Oñatiko Udaleko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. JOSETXO ARANZABAL

**FRANTZISKOTARREN OPARI**

Arantzazun urte guztia ematen duten frantziskotarrendako ere egun berezia da. "Guretzat, urteko egunik garrantzitsuena da. Egun hau ospatzea opari handia da, batez ere hainbeste jende eta erromes ikusita eta bederatziurren guztian Arantzazu beteta dagoela ikusita. Bestalde, gaurtik aurrera, ardura ere badugu mezua zabaltzeko eta herritik gertu egoteko: fededunentzako mezua, kultura desafioa eta naturaren mezua eta berau zaintzeko ardura", esan zigun domekan Iñaki Beristain frantziskotarrak.

Elizkizunaren ostean, Udal Musika Bandaren doinuak entzun eta agintariek Zelai Zabal jatetxean bazkari batekin ospatu zuten Ama Birjinaren eguna.

## Presoen eskubideak errespetatzea aldarrikatu zuten

Euskal preso politikoen senide eta lagunek elkarretaratzea egin zuten basilikaren sarreran agintariak sartu eta irten bitartean. Etxeratek deitutako agerraldian, eskatu zuten presoen eskubideak errespetatzea. Gainera, Miren Azkarateri presoen eta kartzelen egoeraren gaineko txosten bat helarazi zioten, eskatuz agintari politikoek konpromisoa har dezatela egoera hori hobetzeko. Dispertsioa, hiru laurdenak beteta dituzten presoen kaleratzea eta gaixo dauden presoak ditu hizpide txostenak.



*Euskal presoak Euskal Herrira* oihuz hartu zituzten agintariak Etxeratekoek. J.A.

Aretz

Plater konbinatuak • Ogitartekoak • Hanburgesak
Pizzak • Paellak eramateko
Zeliakoentzako ogitartekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



Krisi ekonomikoa hizketarako gaia da azkenaldian. Horrela deitzen diogun arren, oraindik ez ei gara horrelako larritasunera iritsi. Hala ere, Euriborra maila gorenera iritsi da eta familien zorrak handituz doaz; hortaz, esan dezakegu ekonomia, oro har, motelago doala. Argibide gehiagoren bila jo dugu ekonomian aditua den Lander Belokirengana.

**Lander Beloki** > Ekonomialaria

# "Familien erosketa gaitasunean du eragin zuzena etxeen prezio igoerak"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

**Lander Beloki zaldibiarra ekonomian doktorea eta ekonomia irakasle izana da. Gaur egun, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien fakultateko dekanoa da. Egoera ekonomikoa hain gorabeheratsua den garai honetan, gai horren gaineko azalpenak eman dizkigu.**



Lander Beloki ekonomialaria Oñatiko Enpresa Zientzien fakultateko dekanoa da. IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ekonomian, zertan sumatzen da ireileko aldapa?**

Udan AEBetan sortu eta mundura zabaldu diren hipoteken inguruko gorabeherek zalantza hedatu dute merkatuetan. Urtero, iraila hilabete gogorra da, lanean hasten garelako eta horrek aldaketak ekartzen dituelako. Aurten, are gogorragoa da, egoera horri gehitu behar zaizkiolako merkatuetako zalantzak.

**Oinarrizko gaien prezio igoerak ere badu eraginik, ezta?**

Aldaketak urtero izan ohi dira. Eskolara itzultzeak kostua du, batik bat, haurrak dituzten familietan. Guztiok kontsumitzen ditugun produktuen prezio igoerak ere badu eragina. Baina azken hilabeteotako bilakaera ikusita, etxeetako ekonomian eraginik handiena hipoteken garestitzeak du. Etxebizitzen prezioa izugarri igo da, eta horrek eragin zuzena du familien erosketa gaitasuna murriztean. Moneta politikan diharduten eragileek, Europako Banku Zentralak, batik bat, eguenean hartutako erabakiarekin, badirudi egoerarekiko nahikoa sentikortasun dutela. Orain dela aste batzuk nahiko argi adierazi arren inflazioaren aurkako politikak zorrotz jarraitu ahal izateko interesak ziur aski igo egingo zirela egueneko bileran, merkatuetako zalantzak ikusita, gelditu egin dute. Horrek arnasa emango dio etxeko ekonomiari.

**Oinarrizko erosketetan, igartzen da prezioen igoera?**

Oraingoz, eraginik nabarmenena familien aurreztean dauka. Oso maila baxuan dago, eta lehen eraginak izan ditzake kontsumoan. Hori horrela balitz, kontsumoko produktuak ekoizten diharduten enpresetan izango luke eragina, eta hori zabalduko litzateke ekonomia osora. Baina ekonomia produktiboko emaitzak onak dira: enpresak dirua irabazten ari dira, ekoizpen mailak gora doaz, lanpostuak sortzen ari dira... Ez gaude krisian. Ekonomiako motor garrantzitsuenetako bat kontsumoa da Espainiako ekonomia egituran, eraikuntzarekin buruz buru. Azken hilabeteotan, goia jo du, eta ekonomia gutxiago haztea ekarriko du horrek. Etxeko ekonomian erosketetarako arazoak dauden neurrian, eta soldata etxeko ohiko kontsumoari aurre egiteko iristen ez denean, salmentetan nabarmenduko da.

**Langabezia datuak Espainiako azken 20 urteotako txarrenak dira. Gurean ere bai?**

Datuak irakurtzean, langabezia mailari erreparatu behar zaio, eta egun, azken urteetako mailarik baxuenean dago. Hortik igoera izan du, baina, berez, langabezia datuak oso onak dira. Ekonomia oso ondo dabil jendeak ziur dakienean aldagaiek nola jokatuko duten. Baina orain, zalantza asko daude, eta horrek jendearen arriskurako joera murrizten du.

EROSKETAK

**"Soldatak etxeko kontsumoari aurre egin ezin dionean, salmentek sumatuko dute"**

EURIBORRA

**"Aurreikuspenen arabera, barealdia etorriko da, azken igoerak motelduz"**

KRISIA

**"Ekonomia handitzen doa eta, sektore batzuen egoera okerragoa den arren, ez gaude krisian"**

**Pentsioak, aldiz, igo egingo dituztela iragarri dute.**

Kontuan hartu behar da hauteskunde epean sartu garela. Pentsio sistemak badu gaitasuna emaitzak hobeak izateko, ekonomia datuak onak direlako. Azken gorabeherei perspektibarekin begiratu behar zaie ondorioak jakiteko; bitartean, zalantzan izango gara. Izan liteke turbulentzia txiki bat, baina ekonomia finantzarioaren krisia ekonomia errealera iritsiz gero, ondorioak larriagoak izan daitezke.

**Euriborra gora eta gora joateak zein eragin du?**

Euriborra igotzean, mailegu beragatik gehiago ordaindu behar da, eta horrek beste gauza batzuetarako diru gutxiago uzten du. Aurreikuspenen arabera, barealdia etorriko da, eta azken hilabeteotako igoera moteldu liteke. Baina jendeak zalantzak dituenean, edozer gauza gerta daiteke.

**Asko dira kreditu bila joan eta esku hutsik itzultzen direnak?**

Bai, noski; eta gero eta gehiago gertatuko da, kontuan izanda krisia sortu dela AEBetan hainbat hipoteka-bankuk bere gain hartutako arrisku mailak altuegiak zirelako. Horrek ekarriko du banku sistema guztietan kredituak ematerakoan kontrol zorrotzagoa. Espainian eskatzen den batez besteko kopurua 160.000 euro da, eta aurreko kopuruetatik igo arren, igoera txikiagoa da. Kopuruak baretu egin dira bi arrazoirengatik: etxebizitzen prezioen igoera moteldu delako, eta jendeak ez daukalako diru gehiago eskatzeko gaitasunik.

**Opor ostean hipoteken ordainketari aurre egin ezin diotenen kopuruak gora egiten du?**

Hori berankortasunaren bitartez neurtzen da, eta une honetan, bai Europan eta bai Espainian, oso baxua da: ez da %1era iristen. AEBetan, aldiz, kopuruak handiagoak dira. Baina azterketek diote etxearen ordainketa dela jendeak uzten duen azkena; horra iritsi aurretik, beste neurri batzuk hartzen direla.

**Interes tipoak iragan ez oso urrunean larriago egon ziren, baina badirudi orain larritasun sentsazioa handiagoa dela.**

Orain, arazoa ez da interes tipoak altuak direla. Igotzen joan dira, baina duela 15 urte %16an zeuden, egoera ekonomikoa erabat bestelakoa zelako. Etxebizitzen kostua asko igo da, eta jendeak ordainketa kalkuluak eginak zituen interes baxuagoekin. Horrek ekarri du etxe askotako ekonomiaren birplanteamendua.

**Banku Zentralak diruaren prezioari eutsi egingo dio.**

Epe laburrera, etxeko ekonomiari lagundu egingo dio neurri horrek. Epe luzera, ikusi egin beharko da, interes tasa ez igotzeagatik, inflazioa zela dagoen. Gorako joera hartzen badu Europan, hurrengoan igoera etorriko da interes tasetan. Igoerarik ezean, ez da arazo larririk izango.

**Langabezia eta Euriborra gora, baina soldatak, berdin. Krisi garaian gaude?**

Ez. Ekonomia handitzen doa eta ekoizpena gora doa; teknikoki hori ez da krisia. Horrek ez du esan nahi egoera okertu ez denik eta hainbat sektoretan zailtasunak ez daudenik.

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
**> Lehen sorospen ikastaroa Gurutze Gorriarekin**
Hilaren 24tik urriaren 11ra bitartean zabalduko dute izena emateko epea. 30 ordu teoriko eta 20 praktikok osatzen dute. Eskolak izango dira astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:30. Prezioa da 115 euro. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 619 00 35 00 zenbakira, astelehenetik egubakoitzera, 10:00-19:00, eta zapatuetan, 10:00-14:00.

ESKORIATZA
**> Erretiratuen omenaldirako izenematea**
Irailaren 30ean izango da omenaldia. Izenematea hilaren 17tik 21era izango da, 11:00etatik 12:30era, erretiratuen bulegoan. Prezioa 5 euro da.

ARRASATE
**> Txatxilipurdik hilaren 17an irekiko ditu ludotekak**
Aurten, gainera, Okendo eta Santa Marinako ludotekez gain, Usaetxeko ludoteka berria irekiko dute.

DEBAGOIENA
**> AEK-k autoikaskuntza eskolak emango ditu**
Ohiko eskaintzaz gain, autoikaskuntza eskolak ere emango dituzte Bergarako eta Arrasateko AEK-ko euskaltegietan. Ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik dago hilaren 27ra arte.

BERGARA
**> Dantza garaikideko ikastaroa urrian**
Kirol zerbitzuak antolatu du. Urriaren 5ean hasi eta abendura arte iraungo du. Egubakoitzetan izango dira eskolak, 18:30-20:30, Agorrosinen. Irakaslea Saioa Ibañez izango da. Prezioari dagokionez, erroldatuek 15 euro ordaindu beharko dute hileko; gainerakoek, 20. Jasotako izenemate guztien artean zozketa egingo dute, eta bergararrek lehentasuna izango dute.

BERGARA
**> Gaur, astelehena, hasiko dute ikasturtea Miguel Altunan**
Gaur, astelehena, hasiko dute ikasturtea Miguel Altuna ikastetxeko ikasleek. Lehenengo mailetako ikasleena 10:00etan hasiko da; bigarren mailako ikasleena, berriz, 11:00etan.

BERGARA
**> 1942. urtean jaiotakoek irteera egingo dute**
1942an jaiotakoek –1963ko kintoek– Hondarribira irteera egingo dute hilaren 29an. Izenematea hilaren 22ra arte egin daiteke Azpeitxi jatetxean eta Edel oihal dendan –30 euro aurreratu behar dira. Bidaia egunean, 11:00etan abiatuko da autobusa Fraiskozuritik; 12:30ean, Hondarribian txangoa izango da, eta 14:30ean, bazkaria, jatetxe on batean.

BERGARA
**> 1944an jaiotakoen irteera Errioxara**
Irailaren 29an egingo dute irteera. 09:00etan abiatuko da autobusa, Fraiskozuritik; 10:30ean, hamarretakoa egingo dute upelategian; 12:45ean, Vivanco museoa ikusiko dute eta 15:00etan, bazkaldu. Izena emateko azken eguna da irailaren 17a. Horretarako, deitu M. Luisa Muruamendiarazi (943 76 30 88 da telefonoa) edo Bodegon Hernandezera (943 76 20 43 da telefonoa).

BERGARA
**> Ikasturte hasiera Musika Eskolan**
Musika Eskolak jakinarazi duenez, ikasturte berria gaur, astelehena, hasiko da.

ARRASATE
**> Calpera (Alacant) irteera egingo du Abaroak**
Urriaren 20tik azaroaren 3ra izango da irteera, eta prezioa, 445 euro laguneko. Prezioaren barruan daude, besteak beste, joan-etorrirako autobusa eta 14 gau hiru izarreko hotelean, otordu guztiak barne. Izenematea luzatu egin dute. Hortaz, oraindik izena eman daiteke.

BERGARA
**> Begirale lan poltsa osatu nahi du Jardunek**
Aste bukaeretan lan egiteko begirale lan poltsa osatu nahi du Jardun Euskara Elkarteak. Beharrezkoa da euskaraz ondo jakitea. Begirale titulua, ikasketak eta esperientzia izatea baloratuko dira. Izena emateko azken eguna da irailaren 22a. Horretarako, bidali kurrikuluma helbide honetara: Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara. Informazio gehiagorako, deitu 943 76 36 61 zenbakira.

ARRASATE
**> Kulturaten egingo dituzten margo ikastaroetan izena emateko epea laster zabalduko dute**
Eskolak hilaren 24an hasiko dira, eta izenemate epea hilaren 17tik 21era egongo da zabalik, 17:00etatik 19:00etara, Kulturateko margo gelan. Prezioa 125 euro da (irailetik ekainera). Gehienez 20 lagunendako lekua egongo da –hauren gutxieneko adina 7 urte da. Informazio gehiago, 943 25 20 25 telefono zenbakian.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Oihane Agirre** > GOITBko programazio zuzendaria

# Zer daukagu ikusteko gaurko albistegian?

Hilabete telebistarik ikusi gabe! Oporretan ez dut aukerarik izan telebistarik ikusteko eta, egia esan, ez dut faltan igarri. Aurten lehen aldiz ikusi ditut telebistarik ez dutenen guneak bereizten dituzten kanpinak. Baina errutinara bueltatuta, telebista hortxe daukagu. Azken astean bereziki albistegiak ikusi ditut; gertaera gordinen kronika bihurtu dira. Ikus-entzuleak erakartzeko irudirik ikusgarrienaren bila: "ondorengo irudiak gogorregiak izan daitezkeela ohartarazi nahi dizuegu..." Joan zen astean ikusi ahal izan nituen bere buruari su eman zion errumaniarrarenak, senarrak azidoa jaurti zion emakumearenak... Baina konturatu naiz eskaintzen diguten hori ikustera ohitzen hasia naizela. Egunero ikusten ditugu albistegietan genero indarkeriarekin lotutako irudi gordinak, edo hondamendiren batek sortutako sarraskia... Jadanik Irakeko irudiak ez dira erakargarriak, eta horregatik albistegietan gero eta segundo gutxiago eskaintzen dizkiete. Zer izango da hurrengo kate nagusiek eskainiko digutena? Eskerrak badagoen alternatibak!

**"Gaur egungo albistegiak gertaera gordinen kronika bihurtu dira "**

**> Perretxikoak** batzeko sasoia da. **Nik joan zen astean jan nituen aitaginarrebak bildutakoak. Baina hortxe urteroko eztabaida: onddoak biltzera hurreratzen direnek ordainsaririk izan behar dute?**

**> Eguraldiak** ez digu lagundu aurtengo udan. **Ibarreko jende asko doa urtero bertako kostaldera, askotan, neurriz kanpoko alokairuak ordainduta. Datorren urtean ere animatuko ote dira?**

## debagoiendarrak kanpoan

**Francisco Retegi** > Bergara

# "Onddotan ibiltzeko zaletasuna dut eta horretarako egokiagoa da Legutio"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Orain dela 14 urte joan zen Francisco Retegi Bergaratik Legutiora, eta bertan bizi da emaztearekin. Bere zaletasunendako txoko egokia aurkitu du Arabako herri horretan. Urte hauetan hainbeste bertakotu da herriko alkate ere izateraino.**

**Nolatan joan zinen Legutiora bizi izatera?**
Osaba-izebak Legution bizi ziren eta mutikotan, udan, oporretan etortzen nintzen urtero. Ezkondu eta hiru alaba izan nituenean, aste bukaera guztietan etortzen hasi nintzen, eta etxe bat hartu genuen errentan. Gero, alabak ezkondu egin ziren, bi Legutiora eta Gasteizera bestea. Hortaz, senar-emazteok Bergaran bakarrik ez geratzearren, orain dela 14 urte etorri ginen.

**Bizimodua asko aldatu zitzaizun Bergaratik joan zinenean?**
Aldatu zen pixka bat, bai. Nire zaletasunetarako, herri egokiagoa da Legutio. Garai hartan, frontoian, paletan ibiltzea gustuko nuen. Bestalde, mendira paseatzera eta onddo bila joatea ere gustuko dut, eta horretarako Bergaran zaletasuna bazegoen, baina han baino paraje hobeak daude hemen, hortaz, azkar moldatu nintzen Legutiora. Aurrez ere ezaguna nuen, gainera.

**Moldatu ez ezik, erabat bertakotu zarela esan genezake?**
Bai, hala da. Gainera, orain gutxira arte, Legutioko alkate izan naiz. Azken agintaldian, lau urtez jardun dut Udalean. Baina adinean aurrera noa, eta utzi egin dut lan hori.



GOIENKARIA

**Legutioko alkate**
Amaitu berri den agintaldian, lau urte eman ditu herriko alkate lanetan. Orain, erretiroa hartu du.

**Etortzen zara Bergarara?**
Gutxitan. Anaia Arrasaten bizi da, eta Bergaran lehengusuak baino ez dauzkat. Urtean lau edo bost aldiz baino ez naiz joaten orain Bergara aldera bisitan.

**Bergarako zerbaiten faltarik sumatzen duzu?**
Gogoan dut Madurako elkarteko lagun giroa, baina gainontzean, ezer gutxi. Sekula ez naiz izan lagun asko izatekoa. Gutxi baina onak izatea hobe da. Familian ere asko ibiltzen naiz. Bergara ez dut erabat ahaztu, baina ohitu naiz hemengo bizitzara.

**Hortaz, Bergarara itzultzeko asmorik ez daukazu, ezta?**
Ez, ezta pentsatu ere. Adinean gora goaz, 74 urte beteak dauzkat dagoeneko, eta orain ez nago bizi izatera beste inora mugitzen hasteko. Legution bertan lagako ditut nire hezurrak.

**Baduzu harremanik Bergarako jendearekin?**
Ez askorik. Bergarara joaten naizenean, ikusten ditudan ezagun guztiekin geratzen naiz kalean berbetan, baina harreman esturik ez dut bergararrekin.

**Erretiroa hartuta, zein bizimodu egiten duzu Legution?**
Goizean, egunero, pare bat orduko ibilaldia egitea gustatzen zait, eta onddo bila ibiltzeko aprobetxatzen dut. Arratsaldean, irakurtzea gogoko dudanez, horretan ematen dut denbora. Iluntze partean, kalean bueltatxo bat eman eta pare bat txikito hartzen ditut. Bizimodu lasaia egiten dut.

kale inkesta

# Udako opor luzeen ostean, ikastetxera bueltatzeko gogorik baduzu?



**Iñaki Olabarria**
Ikaslea
Bergara

Oporren ostean, ikastolara bueltatzeko gogo pixka bat badaukat. Lagunekin egoteko gogoa daukat, baina, ikastolako lanak egiteko gogorik ez. 3. mailan hasiko naiz, eta pixka bat zailagoa izango da.



**Julen Garmendia**
Ikaslea
Bergara

Lau urtekoen gelan hasiko naiz aurten. Marrazkiak-eta egingo ditut klasean, eta hasteko gogoa badaukat. Orain, zaintzan nago, baina martitzenean hasiko naiz ikastolan, eta horrekin pozik nago.



**Karmele Uribesalgo**
Ikaslea
Bergara

6. mailan hasiko naiz aurten, eta ez daukat batere gogorik berriro martxan hasteko. Gustura egon naiz udako oporretan. Hori bai, lagunekin egoteko gogoa daukat, baina kalean egon gaitezke.



**Leire Sanz**
Ikaslea
Bergara

Eskolara joateko gogorik ez daukat. 6. mailan hasiko naiz, eta iazkoa baino zailagoa izango da. Ikasi behar denean, ikasten dut, nota onak ateratzen ditut, baina ez daukat ariketak egiten hasteko gogorik.

irakurlearen txokoa

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

OÑATI

**> Gauean ere, txakurrak zaindu egin behar dira**

San Lorentzo auzoko bizilagun bat haserre dago, gaueko ordu txikietan txakur batzuen zaunkek loa galarazi ziotelako: "Ez dakit nongoak izango ziren, baina hiru ordu laurden bat egongo ziren zaunkaka. Ez daude horretarako arautegiak, isunak… ere?", dio.

BERGARA

**> Jolasparkeak ondo daude, baina aparkalekuak, zer?**

Bergarar batek ez du egoki ikusten herri sarreran, Ibargarain, jolasparkea egin izana: "Jolasparkeak oso ondo daude, baina dagoen aparkaleku eskasiarekin, ezin zuten hor parking bat egin? Gainera, errepide ondo-ondoa ez da leku egokia jolasparkea egiteko".

ZUZENKETA

## Ezker Batua ez dago AHTren alde

Joan den asteko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn, 9. orrian, Ezker Batua Arrasateko Udalean AHTren aurka eta, Eusko Jaurlaritzan, berriz, alde zegoela esaten zen. Bada, Ezker Batuak argitu nahi du hori ez dela horrela: alegia, Eusko Jaurlaritzan gobernuan egon arren, ez dagoela AHTren alde erakunde horretan ere.

usteak uste

Irati Agirreazaldegi

# Baserria eta gaztea, nolako nahastea

Donostian, Zarautzen eta Ordizian Euskal Jaia. Azken honetan txapeldun Mausitxa baserriko gaztaia.

Gazta irabazlea probatzeko asteburuan ibarrean izan dute aukera, bai behintzat etorri badira Bergara aldera.

Bergara baserritarren eskutik baziren bai barazki, fruta eta gazta. Kalean ikusgai baserriko kasta. Baserritar gazteak gutxi, ordea. Fabrikako lana ote da hobea?

Fabrikakoa eta baserrikoa biak ala biak lana; bietan jarri behar da afana. Baina ordaina da askotan ezberdina dana.

Horregatik arraroa da kaletik baserrirako bidea hartzen duen gaztea; errazagoa da alderantzizko bidea egiten duena ikustea. Baserria zutik mantenduko bada, hobe lanean hastea.

zorroztailea



Juan Luis Azkarate

# Elefanteak etorkin

"Zientzialari hauek planteatzen dutena ez dira parke zoologikoak, Ameriketako Estatu Batuetan milaka urtean egon ziren eta orain dela 13.000 urte –seguru asko, gizakiaren eraginez– desagertu ziren ekosistemak ezagutzeko eta, beharbada, berreskuratzeko esperimentu ekologikoak baizik."

El País > 2007-09-05



Azken *amerikanada* dirudi arren, munduko animalia enblematikoenetako batzuen azken aukera izan daiteke. Bizi garen azken aukeretako garai honetan, ez dakigu garaiz helduko ote den katamotz iberiar, Amazonia, Poloetako betiereko izotzak, baleak, Pirinioetako hartzak, Afrikako basapizti handiak, eta beste hainbat salbatzeko azken aukera. Zerrendako azken animaliei dagokienean, egitasmo iraultzaile bat dator AEBetatik. Orain arte kontserbazionismo lanaren xedea espezien desagertzeari mugak jartzean zegoen; betirako desagerpena atzeratzea, nolabait. Baina urtez urte, Afrikako Parke Naturaletan animalien kopurua gutxitzen doala jabeturik, prozesu naturalak modu aktiboan berreskuratzea da AEBetako zientzialari batzuen proiektu berria. Pleistocene Rewiling delako egitasmoaren helburua Afrikako (eta baita beste leku batzuetako ere) animalia handiak –hala nola, gepardoak, lehoiak, elefanteak, eta abar– oso jende gutxi bizi den AEBetako erdialde eta hego-mendebaldeko lurraldeetara eramatea dugu. Kontua da pizti hauek Pleistozeno garaian, orain dela 13.000 urte, Amerikan bizi zirela. Baina, gizakien ehizaren eraginez, orduan desagertu egin ziren eta, orain, etorkinaren bidaia egingo dute, beraien antzinako bizitokira itzuliz.

**"Orduan desagertu ziren animaliek etorkinaren bidaia egingo dute orain"**

**"Oihaneko animaliak iraganera bidaian datoz 'business class'-ean"**

Ez dakit pauso honek ez lukeen azkartuko Afrikako animalia basatien desagerpena; zeren, behin arriskuan dauden espezie hauen iraupena beste leku baten ziurtaturik, beharbada Afrikako kontserbazionismo lanak erlaxatu egingo ziren. Beste kontu bat da ea egokituko ziren ala ez habitat berrietara, baina bitartekoak jarriz gero (eta AEB ez litzateke tokirik txarrena horretarako, diru aldetik eta) baiezkotan daude zientzialariak. Zientzia-fikzioa dirudi, baina *El País*-eko erreportajean jasotzen denez, proiektua ez da txorakeria, datozen urteetan gauzatu daitekeen errealitatea baizik. Hamaika ikusteko jaioak gara gero.

Munduaren paradoxak. Esperantzarik gabeko gizakiak Afrikatik Lehen Mundura pateran datoz etorkizun duin baten bila; oihaneko animaliak, berriz, iraganera bidaian, *business class*-ean.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> BERGARA**
Ibarrean geratu ziren San Martin feriako lehiaketetako sari nagusiak, zapatuan **> 11**



**> OÑATI**
Herriko jaietarako, gertu egongo dira Kalegoieneko eta kiroldegiko aparkaleku berriak **> 12**



**> ARAMAIO**
Iñaki Nafarratek zuzendari kargu bat hartuko du bihar Arabako Foru Aldundian **> 14**

**OÑATI** > HISTORIA

# Lope Agirre konkistatzaile famatua, oñatiarra... ala aramaioarra?

**MATXINOA**
Espainiako Errege Felipe II.ari matxinatu zitzaion eskutitzez Isla Margaritatik

**LEGENDA BELTZA**
Bere alaba bakarra hil zuen; gero, Agirre bera hil zuten eta gorputza lau zatitan egin zioten



**ERRETRATUA** Lope Agirreren irudi ezagunenetariko bat. GOIENKARIA

**EDURNE BURGAÑA** > OÑATI

Lope Agirre 1511. urtean jaio zen. Data badakigu, baina nongoa ote zen, hori beste kontu bat da. Oraintsu arte, oñatiarra zela argi egon da, berak 1561. urtean Felipe II.ari idatzitako eskutitz famatuan horrela agertzen delako. Baina orain, Aramaion jaio ote zen susmoa dago.

**TRAIDOREA ALA HEROIA?**

Batzuentzat traidorea, eta beste batzuentzat heroia izan da Agirre. Bere bizitza legenda bihurtzeraino idatzi dute haren berri. Baina inork ezin du ukatu iluntasun asko daudela bere bizitzaren inguruan. Non jaioa da? Nortzuk ziren bere gurasoak? Nolakoa zen bere familia? Garai hartan guztien ahotan ibili zen gizonak ondo ezkutuan zeuzkan bere haurtzaro eta gaztaroa.

Lope Agirre Oñatiko Araotz auzokoa zela dioen hipotesia oso zabaldua dago. Baina konkistatzailearen biografian ez dago datu gehiegirik. Hala ere, 1536. urtean Espainiako Erreginak salbokonduktua edo ibiltzeko baimena sinatu zion Perura inolako arazorik gabe joan ahal izateko, eta ordutik aurrera gertatutakoen berri ondo azalduta datoz. 1559. eta 1561. urteen arteko gertakizunak hiru idazlek egindako kroniketan biltzen dira.

Baina biografia sortu nahian, testu bat aurkitu dute Bizkaiko Foru Agirietan gordetzen den Ibarguen-Cachopin Kronika izeneko lan argitaragabean: "*Uno deste apellido de Aguirre, llamado Pedro de Aguirre, que fue vezino del valle de Aramayona, en tienpo del emperador Carlo quinto nuestro señor de gloriosa memoria, se lebantó con una parte de la India (...) de tal suerte que se llamava rey (...). Este Pedro de Aguirre, como digo, fue vezino e natural del balle de Aramayona, de la anteiglesia de Sant Estevan de Urívarri...*".

Cachopinek Pedro Agirre aipatzen du, ez Lope Agirre, baina pertsonaia bera direla argi dago. Litekeena da Lopek izena aldatu izana iragana ezkutatzearren. Tetsuan azaltzen denez, Lope, edo Pedro, Aramaioko Saola auzunean jaio zen. Baina aita hil egin omen zitzaion, eta ama berriro ezkondu zen Aramaioko Uribarri auzoko Agirre baserriko alargunarekin. Ama-semeek, horrela, etxe berriaren izena jaso zuten, lehengoa alde batera utzita.

Lope traidorea zen Cachopinentzat, eta Agirretarrek ez zuten merezi horrelako orbanik bere historia distiratsuan, ezta aitoren semeek horrelako anaiarik euren artean. Oñatikoa zela esaten zuen konkistatzaileak, baina litekeena da jatorriz Gabiriako Agirre etxekoa zela ere esan izana, aita handik etorria zelako-edo. Garaiko genealogian oso hedatua zegoen Uzurtzako Etxaburu etxeko seme bat Gabiriara joan zela eta bertan Agirre etxea eraiki zuela, eta bertatik datozela izen bereko zein ezberdineko izen asko. Gabiriako etxeak fama handia zuen, bertako bi semek mairuen aurka burutu ei zuten balentriagatik eta, esker gisa, Nafarroako Erregeak emandako armengatik. Ezin baztertu Agirrek bere burua goraipatzearren honelako istorioak kontatzen ibili izana.

Gasteizera bidali zuten gaztetan, eta delitu larria egin zuen: neska bat bortxatzea. Urkatzea eta bere gorpua zatikatzea izan zen jarritako zigorra. Aitoren seme batentzat ez zegoen morroien modu berean exekutatua izatea baino zigor iraingarririk.

**KARTZELATIK INDIETARA**

Baina patu latzari ihes egiteko modua aurkitu zuen. Bere leinukoen laguntzaz-edo, iheserako bidea ireki zioten kartzelariaren "deskuidu" bati esker. Etorkizuna irekitzeko irtenbide bakarra Indietara joatea zen. Gainera, Lope Agirrek zorrak utziko zituen ihes egiteko tratuan, eta abentura azkar aberasteko modu segurutzat zuten askok.

Baina teoria berriaren gainean bere dudak ditu Jose Antonio Azpiazu idazle eta historialari legazpiarrak: "XVI. mendekoa zen, eta garai hartan, idatzi gutxi egiten zen. Kronika berriak non jaio zen azaltzen du, eta heriotza bera ere bai. Baina garai hartan, sakramentalak ez ziren jasotzen: hau da, noiz jaiotzen zen bat, noiz ezkondu eta noiz hil. Lehenengo dokumentuak kontratuak eta horrelakoak dira, eta Lopek gutxi egingo zituen. Beraz, Agirreren gaineko idatzi gutxi egotea guztiz normala da. Bere kontra esandakoak daude, idatzi ofizialak direlako, baina gero asmatu dutena asko da. Agirre pila bat daude Euskal Herrian, Ameriketan ere asko egon ziren. Eta Pedro Agirre eta Lope pertsona bera direla esateak, abizen bera dutelako, ez dut uste fundamentu handia daukanik".

Ameriketako gerra zibiletan asko ibili zen Lope, alde batean zein bestean. Erregearen eta bere ordezkarien alde ere hainbat izerdi bota zuen... Baina ez zion Espainiako monarkak inolako esker onik erakutsi. 1560an, eskuin hanka txikituta, El Doradoren bila abiatu zen. Pedro Ursua buruzagia hil eta boterea hartu ondoren, erregeari matxinatu egin zitzaion, gutuna bidalita.

Nekatuta, erabat etsita, alde guztietan etsaiak ikusten zituela, Elvira alabari sabela zulatu zion, inork ez zezan Agirretarren izen ona zikindu, eta zetorkion etorkizun beltzetik libratzeko. Aurkitu zutenean, bi arkabuzkadaz hil, eta gorpua lau zatitan egin eta bide bazterretan bota zituzten. Azkenean, Gasteizen ezarritako zigorra jaso zuen.

Garai hartako kronika ofizialen arabera, gizon maltzurra eta berekoia zen, baina hori bere kontrakoek idatzitakoaren arabera da. "Ez du esan nahi berak idatzitakoa egia denik, ezta bere ingurukoek esandakoa ere egia denik. Bere erretratua egiteko horretan oinarritzeak ez du zentzu handirik", azaldu du Azpiazuk.

Gainera, teoria berria "abiapuntu berria" izan daitekeela uste du historialariak, baina Lope Agirreri buruz zerbait ateratzea nekeza da, ez bada Ameriketako kroniketan agertzen. Gainera, izena aldatu izanak ere ez omen du zentzurik: "Eskutitza idatzi zuenean, argi utzi nahi zuen nor zen, eta zer zuen kritikatzeko. Beraz, oñatiarrok ohoretzat hartu behar dugu hura traidore izan edo ez izan".

Denetik aurki daiteke Lope Agirreren bizitza ikertzen, eta jaso dituen izendapenak ere asko izan dira: eroa, hiltzailea, lotsagabea, baita Askatasunaren Printzea, Jainkoaren Haserrea eta Ameriketako Independentziaren Aitzindaria. Egokiena, Lopek bere buruari ezarritakoa: erromesa.

**UDALA** > LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

# Udalean sei lanpostu eta Euskaltegian bi lan poltsa dituzte betetzeko

Funtzionario izateko sei lanpostu bete behar ditu Udalak; oraindik ez dute izenemate epea zabaldu

Euskaltegiko lan poltsetarako izena emateko epea, berriz, herenegun, zapatua, zabaldu zuten

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasateko Udalak hainbat lanpostu betetzeko beharra dauka. Uztail hasieran egin zuen jakinarazpen ofiziala. Baina Udaleko Enplegu Sailak jakinarazi du oraindik ez dutela zabaldu izena emateko epea, BOEn ez dute argitaratu-eta iragarkia. Argitaratu bezain laster jakinaraziko dute.

**SEI FUNTZIONARIO**

Hain zuzen ere, funtzionario izateko honako postuak bete gura ditu Udalak: administraria eta informatikaria (Udalerako), euskara irakaslea (Udal Euskaltegirako), informatikari laguntzailea (Kulturaterako), hodi iturgina (ur lantalderako) eta bi peoi (obretako lantalderako).

Horrekin batera, Udaleko Enplegu Sailak jakinarazi du bi lan poltsa ere badituztela osatzeko. Bata euskaltegiko irakasle esperientziadunendako da, eta bestea, euskaltegiko irakasleendako, praktikaldian jarduteko.

**IZENA EMATEKO EPEA, ZABALIK**

Azken bi kasu horietan, izena emateko epea zabaldu zuten herenegun, zapatua, eta zabalik izango da irailaren 15era arte, datorren zapatura arte, beraz. Hautaketa-prozesu horretan parte hartzeko eskaerak Portaloiko Biztanleen Arreta Zerbizuan aurkeztu behar dira.

Euskaltegiko irakasle esperientziadunendako lan poltsarako aurkeztu ahal izateko, beharrezkoa da Magisteritza, Unibertsitateko Lizentziatura edo Diplomatura.

Praktikaldiko irakasleen lan poltsarako aurkezteko, berriz, beharrezkoak dira lehen esandako tituluetako bat, baina, asko jota, lau urte lehenago ateratakoa izan beharko da.

LANPOSTU GEHIAGO

## Txatxilipurdi elkartearen lan eskaintza

Txatxilipurdi elkarteak ere badu 2007-2008 ikasturterako hainbat lanpostu betetzeko beharra. Hain justu ere, Arrasateko ludoteka eta gazte txokoetan lan egiteko dinamizatzaileak behar dituzte; lau orduko kontratuko lana eskaintzen du Txatxilipurdik. Antzuolan, Aretxabaletan eta Eskoriatzako gaztelekuetarako ere behar ditu dinamizatzaileak, kasu horretan, asteburuetan lan egiteko. Arrasate edo ingurukoa izatea lehenetsi egingo dute langileak aukeratzeko orduan. Kurrikuluma bidali behar da honako helbidera: Txatxilipurdi elkartea, Pablo Uranga, 6, behea, 20500 Arrasate.



XABIER URTZELAI

## Arbolapetako zuhaitzaren egoera aztertzen

Arbolapetako indiar gaztainondoaren egoera aztertzen dabiltza egunotan. Zuhaitzak kolore marroia zuela-eta, kezkatu eta haren egoera aztertzea erabaki zuen Udalak. Hala, zuhaitzaren laginak (hostoak eta argazkiak) batu eta Donostiara bidali zituzten eguenean, Landareen Osasun Sailera, han azter ditzaten. Hala jakinarazi du Amaia Arana udal teknikariak. Hark gaineratu du ez dakitela noiz jasoko dituzten emaitzak, eta esan du ere emaitzok jaso arte ezin dutela esan zuhaitzaren egoera larria den edo ohiko gaixotasun bat besterik ez duen.



**MARIACHIAK** Mexikoko musika ekarriko dute mariachiek GOIENKARIA

**JAIAK** > URIBARRI-ERGUIN

# Egubakoitzetik domekara, jaiak Uribarri-Erguinen

Bestelakoen artean, Garibaldi mariachiak ekitaldia egingo du bihar, Usaetxen

**U.M.** > ARRASATE

Datorren egubakoitzean hasiko dira Uribarri-Erguin auzoko jaiak, eta asteburuan egingo dituzte ospakizun ekitaldiak.

Hala, bestelakoen artean, egubakoitzean bertan, auzoko hildakoen aldeko meza esango dute, 19:00etan.

**MARIACHIA**

Zapatuan, berriz, goizean zein arratsaldean *Txikitxokoa* izango da Usaetxe plazan; bestelakoen artean, karts-etan ibiltzeko aukera izango da. Eta zapatuan, gauera bagoaz, berriz, Garibaldi mariachiak ekitaldia egingo du. Berez, Txinberos delako taldea kontratatzeko asmoa zuten, baina talde hori desegin egin dela-eta ekarriko dute Garibaldi taldea.

Bukatzeko, bestelakoen artean, domekan bertsolarien saioa (12:30) eta enbor mozketa (13:00) izango dira.

> EUSKARA

### Euskara ikasteko bidea errazteko asmoarekin, autoikaskuntza ikastaroak izango dira AEKn

Arrasate eta Bergarako AEK euskaltegiek berrikuntzaren bidetik jarraituta, aurtengo ikasturterako autoikaskuntza ikastaroak eskainiko dituzte. Azken urteotan ohiko ikastaroetatik kanpo (astean 10 ordu presentzialekoak) hainbat ikasle geratu izan dela eta, denbora aldetik larri dabiltzalako, etxean eta euskaltegian tarteka egiteko ikastaroak izango dira. Maila bakoitzarendako bereziki prestatutako ikas-materiala dauka AEK-k, eta ikasle bakoitzaren beharrei zuzendutako programazioa egokituko du.

> GAZTEAK

### Arrasateko gazte txokoak zabalduko dituzte Uribarri-Erguingo jaiak eta gero

Datorren egubakoitzean, irailaren 14an, Erguin auzoko jaiak ospatuko dituzte, eta asteburuaren ostean, irailaren 18an, martitzena, zabaldu behar dituzte Arrasteko gazte txokoak. Txatxilipurdiko dinamizatzaile Idurre Amozarrainek jakinarazi duenez, datorren martitzenean hasita, gazte txokoek ohiko ordutegiarekin jardungo dute: 17:00etatik 20:00etara. Erguingo jaien barruan, berriz, honako egitaraua izango dute gazte txokoan: 16:30ean, Usaetxe plazan ginkana, txistorrada eta kalejira.

> KULTURA

### Ikasturte berriari begira, aurten ere egingo dituzte pintura ikastaroak Kulturaten

2007-2008 ikasturterako pintura ikastaroak abiaraziko ditu oraingo hilean Kulturatek. Hain justu ere, eskolak hasiko dira irailaren 24an; lanegunetan, 17:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara izango dira eskolak. Amaia Bengoa Arte Ederretan lizentziaduna izango da irakaslea. Interesa duenak izena eman beharko du irailaren 17tik 21era bitartean, 17:00etatik 19:00etara. Gehienez ere, 20 lagun onartuko dituzte, beraz, adi ibiltzea komeni da. Informazio gehiago lortzeko: 943 25 20 25.

SAN MARTIN JAIAK > AZOKA

# Barazki, fruta eta gazta lehiaketetako lehen sariak Debagoienean geratu dira

Epaimahaiaren iritziz, barazki eta fruta onenak Antzuolako baserri bik dute, eta gazta onena, berriz, Oñatin egindakoa da

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Fruta, barazki eta gazta azoka egin zuten zapatuan Bergaran. Baserritarren lana bultzatzea helburu du feriak, baina lehiaketa ere egiten dute. Barazki lehiaketan, hamaika ekoizlek parte hartu zuten; frutari dagokionez, bostek, eta Idiazabal izendapendun 47 gaztagilek izena eman bazuten ere, sarien aurkezleak azaldu zuenez, 34 aritu ziren lehian, horietatik bost debagoiendarrak, eta bakarra herrikoa.

**POLTSIKOARI BEGIRA**

Plazan jarri zituzten barazki eta fruta postuak, osoko bilkuren aretoan gaztak eta Seminarioan denetariko postuak. Guztira 112 postu jarri zituzten, eta horietatik 16 Debagoieneko ekoizleak izan ziren. Hamabik hartu zuten parte lehiaketan, eta gainerako laurek postuak ipini zituzten.

Eguna hasi zuenean fresko egiten bazuen ere, orduak aurrera joan ahala, eta batez ere eguerdi partean, eguzkiak gogor jo zuen.

"Aurreko urteetan baino gauza gutxiago eta jende gutxiago" zebilela zioten postuak ikusten zeuden herritar batzuek. Baina kontuak kontu, azkenerako, jendea animatzen hasi zen.

Hala ere, oporrean ostean poltsikora begira gaudela azaldu zuen postuetako baten zegoenak: "Opor bueltan, diruari begira gaude, eta gauza asko ikusi arren, erosi, ez dute askorik erosi", azaldu zuen.

Azokaz gain, trikitilarien kalejira eta odoloste-dastatzea egon ziren goizean. Arratsaldean, ostera, gaztetxoen txanda izan zen. Zezentxoak eta poniak egon ziren plazan, eta Jardun elkarteak antolatutako jolasak eta tailerrak Munibe plazan.

### Lehiaketan sarituak

**BARAZKI LEHIAKETA**
1. Tomas Larrañaga. Lapatza baserria. Antzuola.
2. Esosi Etxeberria. Arrizaga baserria. Soraluze.
3. Santos Duñabeitia. Bolungarai baserria. Berriz.

**FRUTA LEHIAKETA**
1. Kontxita Izagirre. Bidaurre baserria. Antzuola.
2. Urtza Sarrionandia. Elejalde 61. Igorre.
3. Maria Angeles Duñabeitia. Bolungarai baserria. Berriz.

**GAZTA LEHIAKETA**
1. Nestor Altzelai. Aldai baserria. Oñati.
2. Jesus Ansola. Mausitxa baserria. Elgoibar.
3. Jose Ramon Arrieta. Pikulitxa baserria. Antzuola.



AZOKA Jendea postuei begira JOSETXO ARANZABAL



SARIDUNAK Bergarako alkatea, hiru lehen saridunekin. JOSETXO ARANZABAL

KILOMETROAK 07 > EGITARAUA

# Hogei musika talde eta bakarlari baino gehiago Kilometroak jaian

Urriko lehen domekan, 7an, Bergaran ospatuko den Kilometroetako egitaraua prest dago; batik bat daude umeendako jolasak eta musika ikuskizunak

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Denetik, onetik eta denondako egongo da Kilometroetan, batez ere musika. Egun guztian, ibilbidean barrena prestatutako sei guneetan, 21 musika talde eta bakarlarik jardungo dute, bertsolari eta abesbatzez gain. Musikak hartuko du egitarauaren zatirik handiena, baina izango dira dantzariak, pailazoak eta umeendako ekintzak (tailerrak, eskulanak, puzgarriak, jolasak...).

Denetik dago. Baina ezaugarri batzuk nabarmendu daitezke musika talde eta bakarlariei dagokienez: ia talde guztiek oso musika dantzagarria egiten dute, gorputza astintzera animatzen dutenak. Eta, hala, aurkituko ditugu trikiti, ska, reggae, cumbia eta rumba doinuak; baita rock gogorragoa ere, popa... Eta, bakarlarien artean, euskal musikako interesgarrienetakoak, lehengoak eta gaurkoak. Gehienak Euskal Herritik datoz, baina talde katalan ederrak ere badaude.




Esne Beltza talde berriaren ikurra.

**URRETXINDORRAK-EN MOLDAKETA**

Urriaren 7ko Kilometroetan sei zerbitzu gune izango dira: Ikastola, Usondo, Matxiategi, Artabila, Kiroldegia eta Espoloia. Ikastolan joko dute Emonek eta Belcebluesek, biak ere bergararrak; Belcebluesek Kilometroetako abestia eskainiko du, 17:30ean hasita. Horretaz gain, umeendako jolasak, puzgarriak, erraldoiak eta buruhandiak, betizuak eta Txan magoa ere izango dira. Usondon, Anje Duhalde, Pantxoa eta Peio, Tapia Ta Leturia & Jokin... Azpimarratzekoa da, Santa Marina elizan, Bergarako Orfeoiak eta Aritzeta abesbatzak elkarrekin abestuko dutela. Eta Dabid Azurtzak, Orfeoiko zuzendari izandakoak, moldaketa berezia egin du okasiorako: Urretxindorrak taldearen hiru abesti moldatu ditu, bi abesbatzek kanta ditzaten.

**KAUTA, SAGARROI, ANARI...**

Matxiategin, Trapatoni Curcus Band, Sagarroi, Nour, Esne Beltza, Trikizio, umeendako jolasak, Kiki, Koko eta Moko pailazoak, erraldoiak eta buruhandiak eta zirko tailerra izango dira; Artabilan (Candy parean), Petti, Mulambo, Rauxa, Samar eta umeendako jolasak. Kiroldegian, Fly Shit, SKT Sekuentzia, Gose, Kauta eta E.H. Sukarra.

Espoloian, umeendako jolasak, bertso saioa, trikitilariak, Aitzol Mujika eta Anari egongo dira. Azken gune honetan futbolin txapelketak ere jokatuko dira.

Horretaz gain, zirkuituan barrena, Bergarako Musika Eskolako Gazte Banda, Udal Txistulari Banda, Alai Taldea eta oraindik zehazteke dauden beste ekitaldi batzuk ere izango dira.

LIBURUA > UDAL MUSIKA BANDAREN HISTORIA

# Datorren zapatuan aurkeztuko dute bandaren liburua

175 urte bete ditu Bergarako musika bandak, eta hainbat ekitaldirekin ospatzen dihardute

E.A. > BERGARA

Datorren zapatuan aurkeztuko dute Bergarako Udal Musika Bandaren historia jasotzen duen liburua, udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, 12:00etan.

Liburua Juan Luis Bikuña kazetariak idatzi du eta bandaren sorrera-eraketaren, ibilerazen eta ekitaldien gaineko informazio zehatza dakar. Gaur egungo organigrama ere azaltzen du. 175 urteko historiaren errepasoa ixteko, bandak zineman izan duen presentziari buruzko aipamen bitxia ere egiten da liburuan.

Liburua argazki piloz dator. Batzuk, zaharrak, hainbat artxibotatik jasoak. Lehenengo argazkia, esaterako, 1895ekoa da. Berriagoak ere badaude, Iñigo Zaitegik ateratakoak, esaterako. Bandak izandako zuzendariak, banda bera, bisitatutako tokiak edo emanaldiak jasotzen dira argazkiotan.

**BIDABURUTIK GONZALEZERA**

Udal Musika Bandaren historiari errepasoa egiterakoan, bi zati bereiztu ditu Bikuñak. Lehenengoa 1832. urtean hasten da, San Pedro parrokiako organo joleak, Bidaburu maisuak, Konpainia Filarmonikoa sortu zuenean.

Ondoren, Musikazaleen Musika Bandaren sorreraz berba egiten du eta, azkenik, 1909. urtean amaitzen da zati hau, *Potxoko*-k zuzendari karguari lagatzen dioenean, Udal Musika Bandak bere lehen arrakastak ezagutu eta gero. Bigarren zatia Miguel Gonzalezek zuzendari kargua hartzen duenean hasten da. Honek ekarpen handiak egin zizkion bandari, bai musikarien prestakuntzari dagokionez eta baita Bandak izango zituen emaitza artistikoei dagokienez.

**ZERBITZUAK** > APARKALEKUAK

# Kalegoieneko eta kiroldegiko aparkalekuak, jaietarako zabalik

Udalak ez du finkatu aparkalekuak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoa

Guztira, txandakako erabilera publikorako 172 aparkaleku egokitu dira

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Herri gunean dagoen aparkaleku eskasiari aurre egiteko, Kalegoienan eta kiroldegi berriaren azpian eraiki diren aparkaleku publikoak laster zabalduko ditu Udalak. Asmoa jaietarako erabiltzeko moduan egotea da. Hala, barrakak Oñatira iritsi orduko, kiroldegiko aparkalekua zabalik egongo da.

**TARIFAK**

Aparkaleku horiek erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak zehaztu gabe ditu Udalak. Datozen egunotan erabakiko dira txandakako aparkalekuetako tarifak; edozelan ere, "ordainduta edo doan", Udalaren esanetan, jaietarako txandakako plazak irekita egongo dira.

**AZKEN LANAK**

Herri gunean eraiki diren bi aparkaleku publikoetako lanak amaitzear daude.



**APARKALEKUA** Kiroldegi azpiko aparkalekuko sarrera eta irteera leku beretik egingo dira. MIREIA BIKUÑA

Kiroldegiko parking berrian, autoen sarrera-irteerak kontrolatzeko hesiak eta ordain-makinak jartzea falta da.

Lurpeko aparkalekuan, txandakako erabilera publikorako 101 plaza egokitu dira. Halaber, herritarren artean zozketa bidez esleituko diren itxitako beste hamahiru garaje daude. Zozketan, lehentasuna kiroldegi inguruan bizi diren herritarrek izango dute.

Kalegoienako aparkalekuan 71 plaza daude herritarren erabilerarako.

**BI NORABIDE**

Halaber, aparkalekua irekitzearekin batera, Arantzazu kalea, Iturritxotik Motxon kaleraino, norabide bikoa izango da. Hala, parkingetik irteten diren autoek, zuzenean, saihesbide aldera hartuko dute.

**LEHIAKETA**

## Pegatina lehiaketa deitu du Laixanek

Euskarazko leloak bidaltzeko azken eguna irailaren 16a izango da

**M.B.** > OÑATI

San Migel jaien aitzakian, Laixan elkarteak pegatina lehiaketa deitu du berriro ere. Helburua jaietan ateratko dituzten pegatinetarako leloa aurkitzea da. Euskara eta jaiak oinarri hartutako leloak aurkeztu behar dira.

Lehiaketan parte hartzeko, bi bide daude: batetik, esaldiak Laixan elkartera edo gaztelekura eramatea; eta, bestetik, Guria, Luis, Aker, Aloña Mendi, Ona eta Arrano tabernetan dauden kaxetan uztea. Leloak aurkezteko epea irailaren 16ra arte izango da.

Saria irabazten duen leloaren egileak 60 euro eskuratuko ditu. Iaz, Nagore Aranburu eta haren lagunek egindako leloak irabazi zuen: *Euskaraz! Zelan bestela?*

**BESTE EKINTZA BATZUK**

Laixan elkarteak jaietarako beste ekintza batzuk ere antolatu ditu.

Urriaren 7an, balkoitik balkoira bertso saioa iragarri dute, Xabi eta Fredi Paia anaiekin. Halaber, urriaren 8ran, paella jana egingo dute txosna gunean.

**POLITIKA** > EAE-ANV

# "Kiroldegi berrian segurtasun gabezia larriak ikusi ditugu", dio EAE-ANVk

Kiroldegia zabaldu aurretik, gabeziak konpontzeko "eskaria" egin diete udal arduradunei

**M.B.** > OÑATI

Oñatiko EAE-ANV alderdiko ordezkari Marijo Altubek eta Karmelo Arregik prentsaurrekoa egin zuten eguenean, Zubikoa kiroldegiko eraikin berriaren inguruan, eta hura zelan dagoen konforme ez daudela jakinarazi zuten.

Arregik kiroldegiko eraikin berriak segurtasun gabezia "larriak" dituela azaldu zuen. "Kristal gehiegi dago, eta eskailerak arriskutsuak dira", azaldu zuten. "Halaber, sarrera nagusia eraikin zaharrean egonik, zaintza gutxi dagoela uste dugu".

Kantxaren bueltan dauden zutabeak "desegokiak" direla azpimarratu zuten. "Gogoratu nahi dugu hasierako proiektuan rokodromoa eta sauna aurreikusten zirela", azaldu zuten, "eta zerbitzu horiek ez dira eskainiko".

Karmelo Arregik eraikina zabaldu aurretik "gabeziak konpontzeko" eskaria egin zien udal arduradunei.

Marijo Altubek bestalde, egoeraren "arduraduna" Iñaki Galdos zela adierazi zuen. Halaber, alkatea eta Hirigintza batzordeko zinegotzien izenak ere aipatu zituzten.



**PRENTSAURREKOA** Argazkian, Marijo Altube eta Karmelo Arregi. M.B.

> JAIAK

### Barrakak irailaren 19an iritsiko dira Foruen plazako aparkalekura

Oñatiko jaietarako aste batzuk falta diren arren, zehaztuta dago barrakak noiz iritsiko diren; hala, irailaren 19tik urriaren 9ra arte, bi egunak barne, egongo dira barrakak.

Txurreria. tiro kasetak, ohe elastikoak, matxinsaltoa, txiki-park-a eta txikiendako barrakak dira, besteak beste, plazako aparkalekuan kokatuko direnak.

Azkeneko hiru urteetan, barraketako prezioa berbera izan da; hala, barraken bidaia 1,20 euro da. Halaber, irailaren 21ean, bidaia txartela erdi prezioan salduko da, 0,60 eurotan, hain zuzen.

Jaietako barrakak dauden bitartean, plazako aparkalekua, autoendako, itxita egongo da.

**ARETXABALETA** > ELKARTASUNA

# Agur esan die Udalak gurean egon diren Saharako bi mutikoei

Atzo hartu zuten hegazkina biek; bata Dagla-ra joan da, eta bestea, El Aaiun-era. Pozik joan dira etxera; hori bai, datorren urtean itzuliko direla esanda




**SAHARARRAK** Mutiko biak etxean hartu dituzten familiekin eta alkatearekin, udaletxean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Sahararrei agur esateko ekitaldia egin zuen Udalak joan zen eguenean. Opariak eman zizkien alkateak gurean izan diren bi mutikoei, eta datorren urtean itzultzeko asmoa azaldu zuten eurek.

**BI HILABETEREN ONDOREN**
Iesbaa elkartearen bitartez etorri ziren Saharako bi mutikoak uztailean. Sahararen alde lan egiteko sortu zuten iaz elkartea Aretxabaletan, eta lehenengoz ekarri ditu umeak. Hilabete bi egin dituzte gure artean, eta atzo, domeka, hartu zuten hegazkina etxera itzultzeko.

Hamudik 7 urte ditu eta bigarren aldiz etorri da aurten. Daglan bizi da bera. 8 urte dituen Abdalahi, ostera, lehenengoz etorri da El-Aaiundik. Alkate, Gizarte Ongizate saileko arduradun eta kazetarien aurrean, lotsatu egin ziren, baina etxean hartu dituzten familiek jakinarazi zuten oso gustura egon direla. Maletak opariz gainezka eroan dituzte, baina guztiak ezin eroan, eta beste gauza asko utzi egin dituzte. Biek ala biek datorren urtean itzuliko direla adierazi zuten.

**MUTIKOEI JARRAIPENA**
Olaia Sagredo da Iesbaa elkarteko arduraduna, eta pozik dago Oporrak Bakean egitasmoarekin bizi izandako esperientziarekin. Azaroan joango da Sagredo Saharara, urtero egin ohi duen moduan: "Bizi duten egoeraren berri bertatik bertara jasotzea da asmoa, eta, bide batez, hemen egon diren mutiko biei jarraipena egingo diet", jakinarazi du.

Umeak etxean hartzeko egitasmoa bukatuta, poliki-poliki hurrengo proiektua hasiko dira abian jartzen, karabanaren proiektua, hain zuzen. "Iaz jasotako produktuen nondik norakoak jarraitu ditugu, eta oso pozik gaude Saharan egin duten banaketarekin", esan du. Hori horrela, laster egingo digute deialdia herritarroi produktuak batzen hasteko.

**ARETXABALETA** > KIROL ESKAINTZA

## Gaur hasiko dituzte kirol etxean udazkenerako gertatutako kirol jarduerak

Funkya eta entrenamendu gidatuak dira Kirol Sailak eskainitako jardueren artean berrienak



**SPINNING** Gazte talde bat spining egiten kirol etxean. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA
Eskaintza zabala egin du Udal Kirol Sailak udazkenerako. Ohiko jarduerekin batera, bi berri eskaini ditu: funkya eta gidatutako entrenamendu saioak.

**ITXARON ZERRENDA**
Ur jardueren artean, igeriketa ikastaroak eta aquagyma daude. Gimnasioko jardueretan, mantentze gimnasia, multifitness, spining, hirugarren adinekoendako gimnasia, tonifikazioa, fitbizkarra eta Atzegikoen gimnasia. Koreografia eta dantza jardueretan, ostera, hiru eskaintza: aerobic, batuka eta funkya. Eta jarduera lasaien artean, stretch-pilates.

Horiez gain, beste zerbitzu batzuk ere badituzte kirol etxean: entrenamendu gidatuak, masaje-fisioterapia eta kirol medikuntza.

Jarduera asko gaur bertan jarriko dituzte abian. Beste batzuek, ostera, arratsaldeko spinning saioak, esaterako, itxaron zerrenda daukate. Argibide gehiagorako, ordutegien berri izateko edo izena emateko, kirol etxera deitu behar dute herritarrek, 943 71 26 28, edo *kirola@aretxabaleta.net* helbidera idatzi.

**ESKORIATZA** > LEHIAKETA

## Hilaren 23an egingo dute postal lehiaketako zozketa

Inkernu tabernak antolatu du zozketa, eta dagoeneko 45 postal jaso dituzte

**M.A.** > ESKORIATZA
Inkernu tabernak antolatutako postal lehiaketa azken txanpan sartu da. Hilaren 23an egingo dute zozketa, eta ordura arte jasotako guztiak sartuko dituzte zozketa poltsan.

**LAUGARREN ALDIZ**
Laugarren aldiz antolatu dute postal lehiaketa Inkernuko kideek, eta arrakasta handia izan du aurten ere. Dagoeneko 45 postal jaso dituzte, eta oraindik aste bi geratzen dira bukatutzat emateko. "Australia, Venezuela eta Alaskatik bidalitakoak daude", adierazi du Iñaki Kortazar arduradunak. Hasieran, orijinaltasuna hartzen zuten kontuan, baina orain ez; bidaltzea da baldintza bakarra.

Zozketa egindakoa,n hautatutakoak afaria jasoko du saritzat, Gatzagako Gatzagain jatetxean, hain zuzen.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

**ARAMAIO** > OSOKO BILKURA

# Herrian AHTren inguruko inkesta egitea erabaki du Udalak

Aramaioarrek AHTren inguruan daukaten iritzia jakiteko inkesta egingo dute. Osoko bilkuran onartu den erabakia da hori



SARRERA Aramaiora Zabola auzotik da sartzekoa Abiadura Handiko Trena. ARRITXU BARRUSO

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Herrian Abiadura Handiko Trenaren inguruko inkesta egitea proposatu zuen Eusko Abertzale Ekintzak eguaztenean egindako osoko bilkuran. Herriak proiektuaren inguruan daukan iritzia jakin nahi dute modu horretan.

EAJk ekimenaren kontra bozkatu zuen, eta Eusko Alkartasunak baiezkoa eman zuen. Asier Agirre alkateak azaldu digunez, oraindik zehazteke dago inkesta horrek izango duen formatua edo egingo dituzten galderak.

Horrez gain, AHTren desjabetze espedienteei egindako alegazioen berri eman zuten osoko bilkuran. Izan ere, Udalak enpresa bat jarri zuen herritarren eskura alegazioak idazten laguntzeko. Herriaren alegazioak zein partikularrenak jaso dituztela azaldu digu Asier Agirre alkateak.

**KIROLDEGIA ETA UR ZERBITZUA**
Osoko bilkuran, bestetik, bi plegu atera zituzten: kiroldegia, batetik, eta mezularitza eta ur saneamendu zerbitzuak, bestetik, kudeatzeko.

Herriko kiroldegiaren ardura hartuko duen enpresa berriak 11 hilabeterako kontratua sinatuko du, instalazioen zaintza eta erabileraz arduratuko da eta 26.474 euro jasoko ditu. Mezularitza eta ur saneamenduaren kasuan, 19.758 euro izango ditu ardura hori hartuko duen enpresak . Zerbitzuen gaia izan zen, hain zuzen ere, osoko bilkuran eztabaida handien sortu zuena, Udalbatza berriak uste baitu azken urteetan zerbitzu gaiak ez direla behar bezala zaindu.

**ELGETA**

## Uberatik Elgetara hiru bider bizikletaz 54 minutuan

**MIREN ARREGI** > ELGETA
Juan Martin Elexpuru bergararrak bere burua desafiatu zuen. Hala, ordu bete baino gutxiagoan, Bergarako Ubera auzotik Elgetara bizikletaz hiru bider igo eta jaisteko erronka ipini zion bere buruari. Eta baita lortu ere, izan ere, 54 minutu egin zituen Elgetara hiru bider igo eta jaisten joan den eguenean. Bidea hiru bider egitea kostatu egiten dela dio Elexpuruk, baina poztasunak nekeari tokia kentzen diola, eta merezi izan duela. Orain 20 urteko apustu batetik etorri da guztia. Garai hartan, Uberako elkarteko kideek bildots bat ipini zuten jokoan. Ordu bete baino gutxiagoan Elgetara hiru bider igotzea zen erronka. Orduan, 49 minutu egin zituen, eta orain, 54 minututan burutu du bidea. Errepide hobearekin, eta ordukoak baino bi kilo gutxiago dituen bizikletarekin egin zuen Elexpuruk ibilbidea. Ezin ahaztu, ordea, 20 urte ez direla alperrik pasatzen.

**ANTZUOLA** > HEZKUNTZA

## Ikasturtea gaur hastekoak dira 175 ikasle, goizez

Bi urtekoen gelan, 19 ume berri hasiko dira; 21 irakasle izango dituzte, eta horietatik hiru berriak dira

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA
Gaur, astelehena, hasiko dituzte ikasturte berriko eskolak Herri Ikastetxean. 175 neskamutiko izango dira, hain zuzen. Guztira, 21 irakaslek jardungo dute aurten, horietatik hiru berriak; bat ingeleseko irakaslea, beste bat bi urtekoen gelakoa, eta hirugarren bat Lehen Hezkuntzako irakaslea.

Lehenengo astean, goizez bakarrik izango dituzte eskolak; irailaren 17an hasiko dira goiz eta arratsaldez. Jangela zerbitzua ere hilaren 17an jarriko dute martxan. Pausoka gurasoen elkarteak iaz abian jarri zuen zaintza zerbitzua ere egun horretan abiaraziko dute.

Aipatutako 175 ikasleetatik 19 aurten hasiko dira lehendabiziko aldiz eskolan, bi urtekoen gelan, hain zuzen ere. Ohi bezala, egokitzapen prozesua egingo dute lehendabiziko asteetan, eskolako erritmora, egunerokotasunera eta irakasleengana egokitzeko, pixkanaka-pixkanaka.

**IRTEERAK**
Ohitura bihurtu da Herri Ikastetxean irteerak egitea ikasturte hasieran. Aurten ere, horrelaxe egingo dute: Zuatzara joango dira, hilaren 18tik 21era, laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako neska-mutikoak. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetakoak, bestalde, Hondarribira joango dira hilaren 25etik 28ra.

**HAURRESKOLA**
Haurreskolan, eguenean, hilak 6, hasi dute ikasturtea 19 umek eta lau hezitzailek. 0 eta urtebete arteko gelan, sei ume daude; urtebete eta 2 urte artekoen gelan, hamahiru ume.

**ARAMAIO** > POLITIKA

## Iñaki Nafarrate Arabako Foru Aldundira doa

Iñaki Nafarrate EAJko zinegotziak dimisioa aurkeztu du Aramaioko Udalbatzan. Aldundian zuzendari kargu bat hartuko du bihar

**A.B.** > ARAMAIO
Egun hauetan jakin dugu beste debagoiendar bat ibiliko dela Aldundiko departamentuetan zuzendari lanetan, kasu honetan, Arabako Foru Aldundian. Iñaki Nafarratek zuzendari kargu bat hartuko du bihar, martitzena, Arabako Diputazioan. Nafarratek ez du karguaren zehaztasunik eman nahi izan izendapena egin arte.



Iñaki Nafarrate. ARTXIBOA

Egubakoitzean aurkeztu zuen Nafarratek Aramaioko Udalbatzan bere dimisioa. Hori horrela, Udalbatzak egun berean ezohiko premiazko osoko bilkura egin zuen, dimisioa onartu eta idatzia Hauteskunde Batzordera bidali ahal izateko. Iñaki Nafarratek berak azaldu digunez, Hauteskunde Batzordeak, orain, EAJko zerrendan bigarren tokia betetzen duen Jose Mari Vilches zinegotziari eskainiko dio Nafarrateren kargua: "Ez dut Vilchesekin hitz egiteko aukerarik izan oraindik, baina ez dut uste arazorik egongo denik. Dena dela, ikusi egin behar dugu orain, batzordeetako ardurak nola gelditzen diren". Nafarratek berak azaldu digu ilusio handiarekin hartuko duela martitzenean kargu berria.

**LEINTZ GATZAGA**

## Argindarra moztu egingo dute eguaztenean

Goierri auzoko baserriek eta Arlaban gainekoek jasango dute mozketa

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Datorren eguaztenean, irailak 12, argia moztuko dute Gatzagan. Goierri auzoko baserrietan eta Arlaban gainekoetan moztuko dutela jakinarazi Udalak. Hona mozketaren ordutegia: 08:00etatik 12:30era eta 14:30etik 20:00etara bitartean.

**PINU ARRISKUTSUAK**
Argi sarean mantentze lanak egin gura dituzte egun horretan. Pinuak asko hazi direla ikusi dute, eta batzuk linea ukitzeko zorian daude. Hori gertatuz gero arrisku egoeraren bat sor daitekeela jakinda, bota egingo dituzte pinurik garaienak. Eguaztenean egingo dituzte lanok, eta, pinuok bota bitartean, argindarra moztuta izango da herrian.



**> FUTBOLA**
UDAk galdu eta Mondrak irabazi, ligako lehenengo jardunaldian **> 16**



**> PILOTA**
Aitor Mendizabal AEBetan dago Euskal selekzioarekin **> 17**



**> SASKIBALOIA**
Mondragon Unibertsitatea, nagusi hiruko txapelketan **> 18**



**> ESKUBALOIA**
Urolak irabazi du Bergarako eskubaloi txapelketa **> 19**



**BALOIAREKIN** Argazkian, Aloñako Jon Astigarraga baloiarekin, Aurrera taldeko Andoni lurrean utzi ondoren. JOSETXO ARANZABAL

**FUTBOLA** > PREFERENTE MAILA

# Aloñak, puntu bakarra, lehia bi gehiagorekin bukatu arren

Aurrera taldeko Goros eta Koldo jokalariek txartel gorriak ikusi zituzten

Aloñak bigarren gola egiteko aukera garbiak izan zituen

ALOÑA
**1-1**
AURRERA

**Aloña** > Iñigo, Julen, Iker, Elgarresta, Jon, Roberto, Xabi (72. min. Mikel), Camino (72. min. Iñigo), Unai, Asier (51. min. Astigarraga) eta Iñigo.

**Aurrera** > Galan, Jon, Asier, Eder, Aitzol (20. min. Asier), Goros, Koldo, Aramaio, Ibai (72. min. Aritz), Badiola eta Andoni.

**Epailea** > Merino Jauna.

**Bestelakoak** > Arantzazuko Ama Birjinaren eguna izan arren, ikusle dezente bildu zen ligako estreinako partidua ikusteko.

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Berdinketarekin bukatu zen atzo Azkoagainen Aloñak eta Aurrerak jokatutako preferente mailako lehenengo jardunaldia. Bi taldeek partidu eskasa jokatu zuten. Halaber, Aurrera taldeko jokalariek sarrera itsusiak egin zituzten. Hala, Merino epaileak Ondarroako Aurrera taldeko bi jokalari egotzi zituen. Edozelan ere, Josu Zubiaren taldea ez zen gai izan hiru puntuak eskuratzeko, norgehiagoka bi jokalari gehiagorekin bukatu zuren arren.

Lehia hasi aurretik, minutu bateko isilunea egin zuten Azkoagainen, Aloñako jokalari izan zen Jaime Agirreren eta batzordeko kide izan zen Luis Agirreren omenez.

**LEHENENGO ZATIA**

Lehenengo zatiko minutuetan, zelai erdiko jokoa izan zen nagusi. Bi taldeek zailtasunak izan zituzten baloia menderatzeko eta pase onak egiteko. Hala, partiduko lehen jaurtiketa 12. minutuan egin zuen Aloñak. Xabi Caminoren jaurtiketa desbideratuta irten zen. Zortzi minutu eta gero, Roberto Idigorasek izan zuen lehen gola egiteko aukera. Xabier Elgarrestak ere, bolea indartsu batekin, etxekoendako lehen gola egiteko abagunea izan zuen.

Talde bizkaitarrak lehen jaurtiketa 25. minutuan egin zuen. Halaber, Aloñak, korner erdiraketetan arriskua sortu zuen.

Edozelan ere, atsedenean berdinketa zen nagusi.

**BIGARRENEAN, GOLAK**

Bigarren zatiko lehen minutuetan bi taldeek aukera garbia izan zuten. Bada, lehen gola penalti bidez lortu zuen Aloñak, 59. minutuan. Xabi Caminori egindako penalti jaurtiketan gol egin zuen Unai Arregik.

Minutu batzuk geroago, Aurrera jokalari bat gutxiagorekin geratu zen, Koldok bigarren txartel horia ikusi zuen-eta. Jokalari bat gutxiagorekin egon arren, Aurrerak berdinketa lortu zuen Badiolak egindako golari esker.

Ondarroako taldea bederatzi jokalarirekin geratu arte, Roberto Idigorasek aukera garbiak izan zituen etxekoendako bigarren gola egiteko. Bada, amaieran, puntuak banatu zituzten.

**PREFERENTE MAILA** > LEHENENGO JARDUNALDIA

# Lehenengo neurketan, garaipena lortu dute Arrasateko mutilek

IDIAZABAL
**0-1**
MONDRA

**Idiazabal** > Gomez, Galparsoro, Valor, Imaz, Urreta (Iurreta, 66. min.), Zabalza, Serrano (Arizmendi, 46. min.), Altuna (Artola, 70. min.), Ergedas (Argiñano, 80. min.), Tena eta Loidi.

**Mondra** > Calvo, Andoni, Illart (Mercader, 80. min.), Laspiur, Arazkonaga, Ruben, Loiti (Keixi, 46. min.), Aranbarri (Heriz, 46. min.), Murua, Ekain (Garmendia, 83. min.) eta Lopez (Ormaetxea, 60. min.)

**Epailea** > Labaka jauna.



**ATXABALPE** Irudian, iazko ligan Atxabalpen jokatutako partidua. ARTXIBOA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Igor Gordobilen mutilek ez dute hutsik egin denboraldiko lehenengo lehian. Idiazabalgo zelaian, gol bakarragatik bada ere, norgehiagoka irabaztea lortu zuten. Hala, Arrasateko taldeak denboraldiko lehenengo hiru puntuak poltsikoan sartu ditu.

**AUKERA GUTXIKO NEURKETA**
Zapatuan Idiazabalen jokatutako lehian, nabarmen nabaritu zen ligako lehenengo partidua zela. Bi taldeak erritmo gutxirekin ibili ziren eta, hala, gol aukera gutxi izan ziren.

Hala, lehenengo zatia huts eta hutseko berdinketarekin amaitu zen. Aldagelatik bueltan, arrasatearrek hainbat aldaketa egin zituzten: Aranbarri eta Loitiren ordez Heriz eta Keixi irten ziren. Aldaketok bere eragina izan zuten. Bigarren zatian Mondra gehiago izan zen; Gordobilen mutilek ez zuten joko ikusgarria egin, baina partidua aurrera atera zuten. Jon Muruak egin zuen garaipenaren gola 55. minutuan.

**DENBORALDIAURRE ZAILA**
Zapatuko garaipena oso garrantzitsua izan zen arrasatearrentzat; denboraldiaurrean Mojategin entrenatzeko izan dituzten arazoak kontuan hartuta, indarra hartzeko moduko garaipena izan da Idiazabalen lortutakoa. Orain, etxekoen aurrean jokatu beharko dute. Datorren astean izango da; Anaitasuna etorriko da bisitan Arrasatera. Hala, Mojategin jokatuko duten lehenengo lehia ofiziala izango da.

**PREFERENTE MAILA** > LEHENENGO JARDUNALDIA

# Jarraian jasotako bi gol nahikoa izan ziren UDA esku hutsik itzultzeko Donostiatik

Igor Arenaza entrenatzailea gustura geratu zen taldeak bigarren zatia egindako jokoarekin; orain, datorren asteko derbia dute buruan

EHU/UPV VASCONIA
**2-0**
UDA

**A.E.** > BERGARA
Aretxabaletako taldeak ez du uste bezain ondo hasi denboraldia; izan ere, Donostian, EHU-UPV Vasconia taldearen aurka 2-0 emaitzarekin galdu zuten zapatuan Arenazaren mutilek. Lehenengo zatian jasotako bi goleko aldea ezin izan zuten gainditu UDAko jokalariek. Hala, aurtengo denboraldiko lehenengo hiru puntuak ihes egin diete aretxabaletarrei.

**BI GOL JARRAIAN**
Bi zati oso ezberdin jokatu zituzten UDAko mutilek Martutenen. Lehenengoan, Aretxabaletako taldeak ez zuen itxura ona erakutsi. Hasierako minutuetan, ondo kokatuta zelairatu baziren ere, gero, huts egin zuten.

Vasconiak sartutako lehenengo golak min handia egin zion Aretxabaletako taldeari. Hala, berdinketa lortzen saiatu ziren UDAkoak baina, zoritxarrez, gola egin zutenak etxekoak izan ziren. Hala, Vasconiak bi goleko abantaila lortu zuen lehenengo zatian. Aldageletara markagailuan atzetik joan ziren Arenazarenak.

**BIGARREN ZATIAN, ONDO**
Bigarren zatian, aldaketak egin zituen UDAk; ondorioz, itxura hobea eman zuten aretxabaletarrek. Hala ere, azken emaitzan ez zen nabaritu aldaketa. UDAk ezin izan zuen golik egin.

"Lehenengo zatian, ez dugu guk gura dugun jokoa egin eta, ondorioz, ez gara gu izan", izan ziren Igor Arenazaren berbak partidu amaieran. Bigarren zatian erakutsitako jokoarekin, baina, gustura geratu zen UDAko entrenatzaile berria.

Zapatukoa ahaztu, eta datorren asteari begira jarri dira aretxabaletarrak; derbia jokatuko dute Ibarran Aloñaren aurka.

**1. ERREGIONALA** >

# Bergara eta Antzuola zapatuan hasiko dira

**A.E.** > BERGARA
Datorren aste bukaeran hasiko dute liga lehenengo erregionaleko taldeek. Gure taldeei dagokienez, Bergarak etxean jokatuko du Oiartzunen aurka. Bestalde, Antzuolak Lazkaoren zelaira egin beharko du bisita.

**ABENDUAN, DERBIA**
Aurten, Lehenengo Erregionalean, ibarreko derbia ikusteko aukera izango dugu. Hala, Bergarak eta Antzuolak abenduaren 8an neurtuko dituzte indarrak; ligako 13. jardunaldian izango da, eta neurketa Antzuolan jokatuko dute, Estala zelaian.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Real Union** | **3** | 1 |
| 2. **Touring** | **3** | 1 |
| 3. **Vasconia** | **3** | 1 |
| 4. **Ordizia** | **3** | 1 |
| 5. **Hernani** | **3** | 1 |
| 6. **Berio** | **3** | 1 |
| 7. **Trintxerpe** | **3** | 1 |
| 8. **Mondra** | **3** | 1 |
| 9. **Aurrera** | **1** | 1 |
| 10. **Aloña Mendi** | **1** | 1 |
| 11. **Hondarribia** | **0** | 1 |
| 12. **Eibartarrak** | **0** | 1 |
| 13. **Idiazabal** | **0** | 1 |
| 14. **Zumaiako** | **0** | 1 |
| 15. **Anaitasuna** | **0** | 1 |
| 16. **Euskalduna** | **0** | 1 |
| 17. **UDA** | **0** | 1 |
| 18. **Zestoa** | **0** | 1 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak-Hernani | 1-2 |
| Zumaiako-Berio | 0-1 |
| Hondarribia-Ordizia | 1-2 |
| Real Union-Euskalduna | 3-1 |
| Vasconia-UDA | 2-0 |
| Aloña Mendi-Aurrera | 1-1 |
| Zestoa-Touring | 0-2 |
| Idiazabal-Mondra | 0-1 |
| Anaitasuna-Trintxerpe | 0-1 |

**Hurrengoak**

Berio-Hondarribia
Ordizia-Real Union
Euskalduna-Vasconia
UDA-Aloña Mendi
Aurrera-Zestoa
Touring-Idiazabal
Mondra-Anaitasuna
Trintxerpe-Eibartarrak
Hernani-Zumaiako

### BESTELAKOAK

**LEHENENGO ERREGIONALA (HURRENGOA)**

Bergara-Oiartzun
Lazkao-Antzuola

**BIGARREN ERREGIONALA (HURRENGOA)**

Zestoa-BTLS
Elgeta-Mondra
UDA-Ikasberri

**EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Arizmendi B-Arizmendi | 0-8 |
| Bergara-Urola | 3-0 |
| Mondra-Lagun Onak | 2-0 |

**OHOREZKO GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Ordizia-UDA | 4-0 |
| Mondra-Orioko | 3-0 |
| Burumendi-Aloña Mendi | atzeratuta |
| Bergara-Zumaiako | 1-2 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK (HURRENGOA)**

Ikasberri-Bergara
Soraluze-UDA B Arizmendi

**OHOREZKO KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Eibar-Bergara | 1-1 |
| Aloña Mendi-Tolosa | 1-1 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK (HURRENGOA)**

UDA B-Illintxa
Bergara B-Soraluze
Arrasate-Arizmendi

**KADETE NESKAK, F11 (HURRENGOA)**

Arizmendi-Beasain
Aloña Mendi-Zarautz

**PILOTA** > TXAPELKETA AEB-ETAN

# Euskal selekzioarekin da Mendizabal antzuolarra

## Bihar jokatuko du Mendizabalek bigarren neurketa, Venezuelaren aurka

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Ameriketako Estatu Batuetan da Aitor Mendizabal, San Franciscon, hain zuzen, Euskal Pilota Munduko Kontseiluak antolatu duen lehiaketan.

Aste bukaeran hainbat neurketa jokatu ditu antzuolako pilotariak. Lehenengo jardunaldian, Argentinaren aurka jokatu zuen, Jon Landaburu bizkaitarrarekin batera. Mendizabalek eta Landaburuk 22-3 irabazi zioten Argentinako bikoteari. Hurrengo lehia bihar, martitzena, jokatuko du, Venezuelaren aurka.

Landabururekin ibili da bikote Mendizabal; izan ere, Kepa Arroitajauregi hautatzaileak Mikel Urrutikoetxea, Jon Landaburu eta Aitor Mendizabal pilotariak aukeratu ditu gazte mailako bikotea osatzeko.

San Franciscon jokatzen ari den lehian, Argentina, Bolivia, Txile, Mexiko, Venezuela eta Ameriketako Estatu Batuetako taldeak ari dira lehian.

**URTE BOROBILA**

Aurtengoa urte borobila izan da Antzuolako pilotari gaztearentzat. Hainbat txapelketa irabazi ditu, tartean, Elgetako lau t'erdikoa; 23 urtez azpikoetan nagusi izan zen Mendizabal. Gero, udako partiduetan ere lan bikaina egin du Mendizabalek eta, hori dela-eta selekzioko arduradunek San Franciscora eroatea erabaki dute.



**MENDIZABAL** Irudian, Antzuolako pilotaria. ARTXIBOA



BETI BUSTI

## Bergarako piraguistak Espainiako Kopan izan dira

Aste bukaeran, Nafarroako Lumbier herrian, izan dira Bergarako Beti Busti piraguismo elkartekoak, eta ez dira esku hutsik etorri. Infantil A mailan, Iñaki Usabiaga 16. tokian sailkatu zen, eta kanoetan, Unai Agirrezabal, seigarren tokian. Infantil B mailan, berriz, Patxi Ugalde izan zen irabazlea, eta Aritz Gimbert zazpigarren tokian sailkatu zen. Bestalde, abuztuan Murtzian izan ziren, Espainiako Hirugarren Promozio Kopa jokatzen; han ere, Patxi Ugalde izan zen irabazlea Infantil B mailan.



**TXAPELKETA** > HIRUKOA

# Etxeko taldea samur nagusitu da Iturripen jokatu den txapelketan

Denboraldiaurreko lagunarteko txapelketa izan zen zapatuan Iturripen jokatu zutena

Arrigorriagako Padura, Getxo eta Arrasateko Mondragon Unibertsitatea ibili ziren lehian

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE
Denboraldiaurreko lagunarteko txapelketan, samur nagusitu zen Mondragon Unibertsitatea Arrigorriagako Paduraren eta Getxoren aurka. Txapelketa Iturripen jokatu zen, zapatuan, arratsaldeko seiak eta erdietan.

**30 MINUTUKO PARTIDUAK**
Zapatukoa txapelketa berezia izan zen. Hiruko txapelketa izanda, 30 minutuko partiduak jokatu zituzten, denek denen aurka. Hamar minutuko hiru laurdenetan banatuta ibili ziren nor baino nor gehiago.

Lehenengo partidua Padurak eta Getxok jokatu zuten. Arrigorriagako Padura taldea indartsu irten zen Iturripeko kantxara, eta lehia irabaztea lortu zuen. Hala, zapatuko txapelketan jokatutako lehenengo puntua Padurarentzat izan zen.

Ondoren, etxekoen txanda iritsi zen. Getxoren aurka jokatu zuten arrasatearrek, eta inolako arazo barik irabazi zuten. Etxeko taldeak indartsu dagoela erakutsi zuen; hala, 35 puntuko aldearekin nagusitu zen.

Hala, hirugarren eta azkeneko lehiak erabaki zuen txapelketako irabazlea. Mondragon Unibertsitateak eta Padurak puntu bana zuten; bada, jokoan zegoen hirugarren puntua etxekoentzat izan zen. Mondragon Unibertsitateak alde handiarekin irabazi zion Arrigorriagako Padura taldeari. Modu honetan, txapelketa etxean geratu zen.

"Denboraldiaurreko partidua izateko, zale dezente etorri da Iturripera", esan zuen Jagoba Gamarra Arrasateko saskibaloi jokalariak. Partiduak, baina, luze joan ziren, eta emozio barik. Hala, txapelketa amaitu baino lehenago, hainbat zale joan egin ziren Iturripetik.

**EGUBAKOITZEAN, KOPA**
Liga urriaren 6an hasten bada ere, datorren egubakoitzean, Euskal Kopako partidua jokatuko dute arrasatearrek etxean. 20:00etan izango da, Iturripen, Gasteizko talde baten aurka.

"Hainbat baja ditugu taldean. Iñigo Biain min hartuta dago, eta Igor Peña gasteiztarra ere gaizki dago. Ni neu ere arazoekin nabil; hortaz, baja dezente izango ditugu egubakoitzeko partidurako", azaldu du Gamarrak. Horregatik guztiagatik, zaleak animatu gura dituzte.




**SASKIRATZEA** Arrasateko jokalaria, jaurtiketa egin guran. JOSETXO ARANZABAL


Hizkuntzak ikasiko dituzu, hitza
ingelesa - frantsesa - alemana - euskara - txinera - italiera

Maila guztiak eta malgutasuna ordutegietan

Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

Sistemak:
– Aurrez aurrekoa
– Blended (On Line + Aurrez aurrekoa)

Balio erantsiko zerbitzuak:
– Mediateka, mailegu zerbitzuarekin
– Extranet, materiala on line duten bezeroentzat
– Lingua Maila-ak astero (ingelesezko ikasgai txikiak)
– Astero txatetan parte hartzea
– Hilero kalitate oneko sariak banatzen dituzten hizkuntza lehiaketetan parte hartzea
– Ikasleen jarraipen pertsonalizatua
– Batez besteko ikasle kopuru txikia
– Ordenagailu eta internet gela



Klaseak:
Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan, Aramaion, Eskoriatzan

matrikula epea zabalik

MONDRAGON LINGUA

Arrasate
Araba Etorbidea 4
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua 14
Tel.: 943 71 60 00

Donostia-San Sebastián
Zubieta 26
Tel.: 943 43 31 02

Bilbao
Buenos Aires 7
Tel.: 946 61 34 67

Vitoria-Gasteiz
Florida 8A
Tel.: 945 15 01 55

www.mondragonlingua.com

**HIRUKO TXAPELKETA** > BERGARAN JOKATU ZEN

# Jokatutako bi partiduak irabazita, Urolak eskuratu zuen hiruko txapelketa

Zumarragako taldeak Bergararen eta Arrasateren aurka irabazi zuen

Partiduak ohi baino laburragoak izan ziren; hogei minutuko bi zati jokatu ziren-eta

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Denboraldiaurreko eskubaloiko hiruko txapelketa jokatu zen zapatuan, Bergarako Labegaraieta kiroldegian.

Irailaren 28an hasita, Euskadiko Txapelketan lehiatuko diren Bergarak eta Arrasatek, eta Zumarragako Urola taldeak neurtu zituzten indarrak. Hala, jokatutako bi norgehiagokak irabazita, Urolak irabazi zuen txapelketa.

**PARTIDU LABURRAK**

Zapatuan, 40 minutuko partiduak jokatu ziren, hogei minutuko bi zatirekin. Lehenengo lehian, Arrasatek eta Urolak jokatu zuten.

Arrasateko taldeak agindu zuen markagailuan lehen zatiko minutu gehienetan. Tarte hartan, gehienez, bi goleko errenta izan zuten arrasatearrek. Bada, atsedenaren ondoren, Urolak, 0-3ko partzialari esker, lehia bere alde jarri zuen.



**HEGALETIK** Argazkian, Bergarako Xabier Najera, hegaletik gola egiten. JOSETXO ARANZABAL

Lehenengo partidua galduta, bigarrenean, Arrasatek Bergararen aurka jokatu zuen. Atsedenera hiru goleko abantailarekin iritsi ziren (7-10). Bigarren zatian, etxeko taldeak, 6-2ko partzialarekin, markagailua berdindu egin zuen (17-17). Bada, Bergarak erasoan egindako hutsei esker, Ford Mugarrik tartea zabaldu zuen berriro (17-19). Azken emaitza arrasatearren aldekoa izan zen.

Hirugarren partiduan, Zumarragako taldeak agindu zuen hasieratik bukaerara.

Lehen zatiko ordu laurdena bete orduko, 3-6 aurreratu zen Urola. Atsedeneko lau goleko errenta nahiko izan zen Bergararen aurkako partidua irabazteko.

**Josetxo Muniategi** > Bergarako entrenatzailea

## "Euskadiko mailan jarraitzeko, Labegaraietan jokatzen ditugun lehiak irabazi behar ditugu"

**M.B.** > BERGARA

**Hiruko txapelketako bi partiduak galdu zituen Bergarak zapatuan. Txapelketari buruz, eta irail bukaeran estreinatuko duen Euskadiko Txapelketari buruz hitz egin genuen Josetxo Muniategirekin.**

**Arrasateren eta Urolaren aurkako bi partiduak galdu egin dituzue. Nola ikusi duzu taldea?**

Egia esan, nahiko gaizki. Ez dugu dakigun moduan jokatu, eta hala, ezin daiteke partidurik irabazi. Edozelan ere, hobeto da, galtzekotan, denboraldiaurreko partiduak galtzea.

**Aste gutxi batzuk falta dira Liga Txapelketa hasteko. Zein da Euskadiko Txapelketan jokatuko duzuen lehen denboraldirako helburua?**

Guk helburu bakarra dugu: mailari eustea. Euskadiko Txapelketan jokatzeko txartela lortuta, mailari eutsi behar diogu, hala nola.

**Bada, helburua lortzea ez da batere samurra izango.**

Ez. Euskadiko mailara igotzen diren taldeendako, denboraldi ona egitea oso zaila izaten da. Iaz, Ford Mugarrik urte ona egin zuen, baina ez da ohikoa. Guk asko sufrituko dugu mailari eusteko.

Halaber, iaz egon ginen mailatik Euskadiko Txapelketara aldaketa handia dago. Jokoa eta jokalarien ezaugarriak oso ezberdinak dira. Gure taldean, hiru jokalarik bakarrik ezagutzen dute Euskadiko Txapelketa.

**Helburua lortzeko gakoa non egongo da? Etxeko partiduetan?**

Duda barik, etxeko partiduetan oinarritu behar dugu gure denboraldia. Edozelan ere, ez da erraza izango. Euskadiko Txapelketan, etxetik kanpo partiduak irabaztea oso zaila izaten da. Kontutan hartu behar dugu, maila honetan, epaileen lana oso zorrotza izaten dela.

**Jokalarien artean, aldaketa asko dago? Fitxaketarik egin duzue?**

Igoera lortu genuenean, argi esan nuen jokalari luzeagoak behar genituela. Hortaz, fitxaketak egiten saiatu gara, baina ez dugu jokalari berririk lortu. Hala, iazko jokalari talde berbera izango dugu. Halaber, gazte mailatik igotako jokalarien laguntza izango dugu.

**Liga hasi aurretik, lagun arteko partidu gehiago jokatuko dituzue?**

Aste bukaeran, Oñatin, Mikel Deunaren Eskubaloi Txapelketa jokatuko dugu. Finalerdia Zarautzen aurka jokatuko dugu. Zapatuko lehia irabazita, irailaren 23an, txapelketako finala jokatuko dugu; bestela, irailaren 22an, hirugarren eta laugarren tokiak zehazteko partidua.

**Noiz hasiko duzue denboraldia?**

Irailaren 29an hasiko dugu, Donostiako Egia taldearen aurka.



Josetxo Muniategi. MIREIA BIKUÑA

**TXAPELKETA** > 49. SAN MIGEL SARIA

# Esprintean erabaki zen Oñatiko gazte mailako proba

Getariako Viveros San Anton taldeko Gorka Olaizola nagusitu zen Olakuako helmugan, Bagues eta Mitxelenari aurre hartuta



**ESPRINTA** Olaizola, Bagues eta Mitxelena, helmugan. JOSETXO ARANZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Iaz bezala, aurten ere esprintean erabaki da Oñatiko San Migel saria. Olakuako zuzengunera hiru txirrindulari ihes eginda iritsi ziren; hala, esprintean azkarrenak, Gorka Olaizolak, irabazi zuen garaikurra. Azken metroetan, Bruesako Aritz Bagues eta Puertas Diprocako Julen Mitxelenari aurre hartu zien Olaizolak. 1:51:16ko denbora egin zuen.

### Sailkapena

| | |
|---|---|
| 1. Gorka Olaizola | 1:51:16 |
| 2. Aritz Bagues | 1:51:16 |
| 3. Julen Mitxelena | 1:51:16 |
| 4. Garikoitz Bravo | 1:51:26 |
| 5. Unai Amenabar | 1:52:34 |
| 6. Txomin Juaristi | 1:53:47 |
| 7. Ander Zubillaga | 1:53:47 |
| 8. Josu Urtubia | 1:53:47 |
| 9. Jon Urtizberea | 1:53:53 |
| 10. Beñat Mendia | 1:54:04 |

**USTE BAINO ZIKLISTA GUTXIAGO**

Oñatiko gazte mailako probako antolatzaileek 100 txirrindulari inguru espero zuten, baina azkenean, gutxiago izan ziren irteera puntura joandakoak. 57 txirrindularik hasi zuten 76 kilometrotako proba.

Olakuatik irten eta txirrindulariek Bergara aldera hartu zuten; Osintxun buelta eman eta Oñatira joan ziren berriz ere. Lehenengo kilometroetan tropela bat eginda zegoen. Ihesaldi saiakera batzuk izan ziren. baina denak ezerezean geratu ziren. Txirrindulariak Oñatira iritsi zirenean. Udana igo behar izan zuten. Bada, erabakigarriak izan ziren Udanako maldak; han. lasterketa gogortu egin zen. eta Urretxutik Bergarara bidean, bost txirrindularik, tartean, probako irabazleak, ihes egin zuten.

**IBARREKO TXIRRINDULARIAK, ONDO**

Proban parte hartu zuten 57 txirrindularietatik 36 iritsi ziren helmugara; Xabier Arnaiz, Julen Arkauz eta Julen Elkoroiribi oñatiarrak eta Iban Caballero bergararra, tartean.

Irabazlearen bataz besteko abiadura 40,98 kilometro ordukoa izan zen.

Esan bezala, Gorka Olaizolak irabazlearen garaikurra eta lore sorta jaso zituen Oñatiko proban. Mendiko saria Julen Mitxelenak irabazi zuen, eta taldekako saria Puertas Diprocak eroan zuen. Bestalde, Xabier Arnaizek lehenengo oñatiarraren garaikurra jaso zuen, Olakuara gerturatutakoen txalo artean.

**IRAILAREN 22AN, AFIZIONATUAK**

Bi aste barru, irailaren 22an, afizionatu mailako lasterketa jokatuko da; Oñati Sariaren 20. edizioa, hain zuzen.

Hasiera puntua eta helmuga Olakuan izango ditu lasterketak, eta txirrindulariek 120 kilometroko itzulia egin beharko dute ibarrean. 10:00etan hasiko da.

**EKITALDIA** > OMENALDIA

# Omenaldia jasoko du Gorospek zapatuan

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango da omenaldia, eta baita ere bazkaria; interesatuak hilaren 12a baino lehenago apuntatu behar dira



**ANTOLATZAILEA** Emilio Mandaluniz, omenaldiaren antolatzailea. JOSETXO ARANZABAL

**A.E.** > ELGETA

Hilaren 15ean, zapatua, omendu egingo dute Julian Gorospe txirrindulari ohia Elgetan. Elgetako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Espaloia Kafe antzokian izango da omenaldia eta bazkaria; mahaiaren inguruan 14:30ean bilduko dira.

"Urtero antolatu izan dugu txirrindularizaleok bazkaria, eta Gorospe beti etorri izan da. Orain, txirrindularitza utzi duela-eta, omenaldia egitea pentsatu dugu", adierazi du omenaldia antolatzen ari den Emilio Mandaluniz elgetarrak.

**BAZKARIA, 40 EUROTAN**

Bazkarira joan gura duenak etzi, eguaztena, baino lehenago eman beharko du izena Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Hala, bazkarirako txartela 40 eurotan saldu-ko dute.

Elgetako Txirrindulari Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu zapaturako: "Lehenengo ongietorria egingo diogu, gero bazkaria egingo dugu Espaloian eta, ondoren, kantuan arituko gara", azaldu digu Mandaluniz. Espainiako Itzuliko etapako irudiak ere jarriko dituztela esan du, "baina denbora gutxian, aspaldian bata bestea ikusi ez dugun lagunak elkartuko gara, eta jendea berba egiteko gogoz etortzen da", esan du.

**HAINBAT AURPEGI EZAGUN**

Gorosperi egingo dioten omenaldira hainbat ziklista ohi etorriko dira; Jimenez eta Arroyo, besteak beste. Guztira, 100 lagun inguru elkartuko direla espero dute antolatzaileek.

"Omenaldiaren helburua Gorospek orain arte egindako lana eskertzea izango da. Urtero etorri izan da Elgetako bazkarira, eta beti ekarri izan digu ziklista gazteren bat; Mayo, Laiseka edo Irizar, esate baterako. Gurekin oso ondo portatu izan da, eta hori eskertu gura diogu", esan digu Mandaluniz. Bada, zapatuan egongo da Julian Gorospe Elgetan omentzeko aukera.

**MENDIKO BIZIKLETA** > IRTEERA

# Gatzagako irteeran 180 lagunek hartu zuten parte

Dorletako Andra Mari jaien barruan egin zen atzo mendiko bizikleta irteera; 35 kilometrotako ibilbidea antolatu zuten gatzagarrek



**IBILALDIA** Irteera puntuan 150 lagun elkartu ziren helduen ibilaldian. JOSETXO ARANZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > GATZAGA
Beste urte batez, txirrinduzale mordoa elkartu zen Gatzagan mendiko bizikleta ibilaldirako; aurtengoa bosgarren edizioa izan da.

**ANDRA MARI JAIAK**
09:30ean hasi zuten Andra Mari jaien barruan antolatutako proba; ordurako, parte-hartzaile guztiak gertu zeuden Gatzagako plazan. Irteera puntuan 150 parte-hartzaile zeuden; Gatzagako txirrindulariez gain, Debagoieneko beste herrietatik etorritako hainbat lagun ere elkartu ziren mendiko bizikleta ibilaldian.

35 kilometrotako martxa antolatuta zuten atzorako; Gatzagako plazatik abiatuta, trenbidetik Hiru Errekara jo zuten. Gero, Gure Ametsa jatetxetik Maroto aldera hartu zuten, berriro Gatzagako plazan amaitzeko. Lehenengo parte-hartzaileak 12:30 inguruan heldu ziren Gatzagako helmugara. Lagun gehienak sakabanatuta iritsi ziren bukaerara; gehienak, baina, pozik.

**GAZTEAK 11ETAN IRTEN ZIREN**
Atzo, baina, ez zuten helduek bakarrik egin bizikleta irteera; 11etan, gaztetxoek egin zuten irteera. Gainera, iaz baino lagun gehiago elkartu ziren; 30 lagunek egin zuten irteera, eta guztiak pozik geratu ziren ibilaldiarekin.

Amaieran, plazan, partaide guztiek bizikletak garbitu eta dutxatzeko aukera izan zuten. Gainera, masajeak hartzeko postuak ere jarri zituzten. Bestalde, mokadutxoa hartzeko aukera ere izan zuten; pilotalekuan, pintxoak, edariak eta gaileta zeuden mendi martxan parte hartu zuten guztientzat.

Atzokoa mendi bizikleta irteera zenez, ez zen irabazlerik egon eta, ondorioz, ez zuten garaikurrik banatu. Hala ere, antolatzaile taldeak opariak banatu zituen parte-hartzaileen artean; zozketa bidez, hainbat produktu eta kamiseta banatu zituzten amaieran.

Gatzagako mendiko bizikleta ibilaldia Gatzagako Udalak eta ziklista taldeak antolatzen du. Antolatzaile taldeko Iñaki Elkorobarrutiaren berbetan: "Eguna primerakoa izan da; oso gustura geratu gara ibilaldiak izan duen erantzunarekin". Bada, datorren urtean ere antolatuko dute.

HURRENGO HITZORDUA

### Domekan, Oñatiko irteera egingo dute

Azken urteetan izan diren gorabeherak tarteko, aurten, berriro ere endiko bizikleta egingo dute Oñatin, 18.a, hain zuzen. Datorren domekan izango da, hilaren 16an, 09:00etan. Parte hartu nahi duenak Zubikoa kiroldegira joan beharko du eta bertan izena eman egunean bertan. Parte-hartzaile bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du eta, antolatzaile taldekoek esan dutenez, derrigorrezkoa da kaskoa eramatea. Kiroldegitik irten eta Bakuetik Urrexolara joko dute txirrindulariek; gero, Araotzera igo eta Mikeletetxetik Kortakogainera. Azkenean, Gorordotik Oñatira bidea hartuko dute.

**PALA** > TXAPELKETA ARETXABALETAN

# Bigarren Joteko prest! pala txapelketa

Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak antolatuta, Iturrigorri pilotalekuan jokatuko da, bigarren urtez jarraian, pala txapelketa

**A.E.** > ARETXABALETA
Urriaren 9an hasiko da, Aretxabaletan, II. Joteko prest! Pala Txapelketa. Iaz bezala, Loramendi euskara elkarteak antolatu du txapelketa hori.

**IZENEMATEA HASITA DAGO**
Txapelketa Aretxabaletako zein beste herrietako zaleei zuzenduta dago; izenematea eguaztenean hasi zen, irailaren 5ean, eta irailaren 24a arte egongo da zabalik.

Parte hartu nahi duenak Loramendi elkartera jo beharko du; horretarako, 943 77 09 70 edo 685 75 67 29 telefonora deitu edo *loramendi@topagunea.com* helbidera idatzi behar du. Txapelketa egiteko, gutxienez lau bikotek eman beharko du izena.

Izena ematerakoan, bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du. Gainera, Loramendi elkartekoek adierazi duten bezala, jokalari bakoitzak bere palak eraman beharko ditu.

**PARTIDUAK, ITURRIGORRIN**
Egutegia adostuko da izena ematen duten bikoteekin. Hala, partiduak urriaren 9an hasiko dira eta, urria, azaroa eta abendua bitartean jokatuko dira.

Partidu guztiak Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan izango dira, martitzen eta eguenetan, 19:30ean hasita. Final handia abenduaren 14an jokatuko da, egubakoitza, Iturrigorri pilotalekuan. Iaz bezala, sari ikusgarriak izango dira.




**TXAPELKETA** Iazko txapelketako parte-hartzaile batzuk. ARTXIBOA

# Debagoieneko **WEBGUNEAK**




**AHOLKULARITZAK**
**ASEGI**
www.asegim.com
**ESTRADOS**
www.consultoriaestrados.com

**AKADEMIAK**
**BASTIDA**
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
**BZ SISTEMAS**
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
**MARRUBI**
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
**ZUMADIA**
www.zumadia.com

ARETOAK
**360 ARETOA**
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
**MARIA JESUS**
www.mjargazki.com

AROZTEGIAK
**ARREGI**
www.goiena.net/blogak/arregi
**AZKARATE**
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRANDEGIAK
**ITSAS EDER**
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
**BRIZ ASEGURUAK**
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
**LAGUN ARO**
www.seguroslagunaro.com
**WINTERTHUR**
www.axawinterthur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK
**4QUATTRO4**
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
**BARCELO**
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
**OSKAR VITORIA**
www.goiena.net/blogak/vitoria

EGUZKI OIHALAK
**TOLDOS LETE**
**www.toldoslete.com**

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
**ARETXARGI**
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
**SETALDE**
www.setalde.com

ELKARTEAK
**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA**
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
**CONSTRULAN**
www.construlansl.com

ERROTULOAK
**PANDO**
www.goiena.net/blogak/pando
**ROTUDENAK**
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK
**ANGELA**
www.angelaestetika.net
**GUZTIZ EDER**
www.goiena.net/blogak/guztizeder
**LILURA**
www.goiena.net/blogak/lilura
**MAIER**
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
**EKIN**
www.goiena.net/blogak/ekin

GARAJEAK / KONPONKETA
**AUTOS ARETXA**
www.autosaretxa.com
**AUTOS RIBELOGA**
www.autos-ribeloga.com
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**
www.goiena.net/blogak/gallastegi
**JC RACING**
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
**HEMEN**
www.hemen-garbiketak.com
**DENETIK GARBITASUN MEKANIZATUA**
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
**IRUDI SPORT**
www.goiena.net/blogak/irudisport
**ZAINDUZ**
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
**ETA INTEGRALA**
**GALGORRI**
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
**LANDALUZE**
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
**OKIPARK S.L**
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
**URDEKI**
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
**MONDRAGON LINGUA**
www.mondragonlingua.com
**LA PUERTA AL INGLES**
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
**HOTEL MONDRAGON**
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
**ARETXABALETA INSTITUTUA**
www.iaretxabaleta.com
**ARIZMENDI IKASTOLA**
www.arizmendi.ikastola.net
**ELKAR-HEZI IKASTETXEA**
www.elkarhezi.com
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
**RICHI**
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK
**SUMINISTROS UGARTE**
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
**DCA COMPANY**
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
**HARRILUR**
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
**ANBOTO**
www.inmoarrasate.com
**ARRIETA & SAN MIGUEL**
www.arrietasanmiguel.com
**KOROSTI**
www.inmokorosti.com
**UDALATX**
www.udalatx.com

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
**URKO MANTENIMIENTO, S.L.**
http://www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
**GERTU**
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
**MARKIEGI**
www.goiena.net/blogak/markiegi
**UDALAITZ**
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
**BASTER ALDE**
www.baster-aldejatetxea.com
**DRAGON ORIENTAL**
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
**DUKIENA**
www.goiena.net/blogak/dukiena
**MAULANDA MERENDERUE**
www.goiena.net/blogak/maulanda
**OTZETA**
www.goiena.net/blogak/otzeta
**TABERNA BERRI**
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

KALAMUA
**KLOROFILA**
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
**LAINO. SKATE & SNOW**
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
**GANDIAGA TOPAGUNEA**
www.gandiagat opagunea.com

LANDETXEAK
**ARTEAGA**
www.arteagalandetxea.com
**ATERBE**
www.aterbe.com
**UXARTE**
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
**BATUAK S.A.**
www.batuak.com
**LINEAS LASA**
www.lasa.es
**PERFIPAR**
www.goiena.net/blogak/perfipar
**TALLERES CARPINSA S.L.**
www.carpinsa.com

LEIHOAK
**ARGI-PLASTIK**
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
**EGO**
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
**EKILORE**
www.goiena.net/blogak/ekilore
**MAYTE LORADENDA**
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
**KORO ZABALETA**
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
**AIASTUI**
www.goiena.net/blogak/aiastui
**OGIZUN**
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
**MERKEOPARI**
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**
www.goiena.net/blogak/garaia
**ANTONIO BENITO**
http://www.antoniobenito.net

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
**FORMAK**
www.formak.net
**IPAR PROJECT**
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
**ADOX**
www.adoxnet.com
**AKORT-PUBLICIDAD**
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
**BASTIDA**
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
**EZKUTU**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**ORLY**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**GUREA**
www.goiena.net/blogak/gurea
**HAMAIKA… TABERNA**
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
**ZIRIPOT**
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
**GANESHA**
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
**GORKA GARAI**
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**
www.aizue.com
**ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
**HAURTXOA**
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
**URBIETA**
www.goiena.net/blogak/urbieta
**GELATZU**
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
**ATAI**
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEAK
**ELEJALDE**
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.


**> IRRATIA**
Bergarako Txapa Irratiak gertu dauka programazio berria **> 26**


**> JAIAK**
Gatzagan, giro ederrean ospatu dituzte Andra Mari jaiak **> 26**


**> RADIO WINGS**
Rock taldeak despedida kontzertua egin du Arrasaten **> 27**


**> OIHANA ELORTZA**
'Ilunpean' saioko aurkezlearekin berriketan **> 29**


**ESTUDIOAN** Ezkerretik eskumara Aby-Kem taldeko Iñaki Ibarzabal, Mikel Alvarez eta Aimar Lasa, Arrasateko Shot! estudioan. GOIENKARIA

**MUSIKA** > DANBAKA

# Aby-Kemekoek grabatu dute lehen diskoa: 'Azken Guda'

Uztailean egon dira Shot! grabazio estudioan, eta orain, diskoetxearen ordua da

Sei abesti batzen ditu diskoak, guztiak ildo berekoak, thrash eta metal estilokoak

**EDURNE BURGAÑA** > BERGARA

Bergarako Aby-Kem taldeak II. Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketa irabazi zuen, eta horren ordainetan, Arrasateko Shot! estudioan diskoa grabatu dute. Uztailean zehar egin dituzte lanak, eta orain, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratuko dute euren lehen lana.

**EMAITZA, EZBERDINA**

*Azken Guda* deituko da diskoa, abesti bat bezala. Sei abesti bilduko ditu, guztiak estilo berekoak: thrash-a eta metala. "Hasieran, bederatzi abesti sartu behar genituen diskoan, baina azkenean, hiru kanpoan lagatzea pentsatu dugu. Izan ere, baztertutako horiek ez dira guztiz ildo berekoak, eta horrela, aukeratutako sei abestiek diskoa konpaktua izatea lortu dute. Gainera, abesti batzuk ezagunak izan arren, beste batzuk sekula jendaurrean jo barikoak dira", azaldu du taldeko abeslari Mikel Alvarezek.

Lehen, hiru kantuko demoa grabatuta zuten, eta orain, diskoan sartu bariko abestiekin batera, beste zerbait egiteko asmoa dute.

Lortutako emaitza ez omen da espero zutena: "Zuzeneko talde bat gara, eta diskoan lortutako soinua ez da betikoa. Baina horrek ez du esan nahi onagoa edo txarragoa denik. Ezberdina da", gehitu du Alvarezek.

Kaleratzeko data oraindik jarri barik dute, baina Durangoko Azokarako kalean gurako lukete: "Garai ona da lana kaleratzeko, saltzeko aukera handiagoak daudelako Durangon", argitu du abeslariak.

Taldeak gorabeherak eduki ditu ibilbidean. Zorte txarra eduki dutela dio Alvarezek, baina ona ere bai. Danbakako saria irabazi izana pauso handia izan dela azpimarratu du taldekideak: "Gaur egun, gu bezalako talde gazte batentzat, oso zaila da diskoa grabatzea. Diru asko behar da horretarako. Grabatzea bakarrik ez, sariaren baitan Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratzea ere sartzen da, eta hori ikaragarria da".

Baina diskoa kaleratzea ez da azken pausoa Aby-Kemekoentzat. Orain, promozio beharrak egin behar dira, "eta kontzertuak egin. Azken finean, zuzeneko taldea gara, eta nahi duguna kontzertuak egitea da".

Ez dakite noiz hasiko diren oholtza gainean lanean, baina gogotsu datoz, eta musika munduan, gogoa beharrezkoa dela argi dute.



# III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEH

**Argazki guztiak fotoblog honetan:**



**DELHIKO TEILATUAK BIZI-BIZI.** Hiri zaratatsu, jendetsu eta usaintsu honek, eguzkia gordetzen den une magiko horretan, beste aurpegi bat erakutsi ohi du. Ilunkara guztietan, Delhiko teilatuak jendez betetzen dira, beraien kometak haizearen esku utziz. Ilunabarrero, Delhiko zerua kometez beteta ikustea espektakulu bat da. /Argazkia: Larraitz Arando /Aretxabaleta



**EGUZKILOREA.** Aurtengo udan Burgosko Frias herrian ateratako argazkia. Eguna lainotsua egon arren, eguzkiak kiku egin zuen, eta eguzkilorea ere, hari begira. /Argazkia: Jose Ramon Txintxurreta /Oñati



**ITZALAK.** Macoteran ateratako argazkia. Arratsaldeko zortziak aldera, eguzkia sartzen ari zela, bederatzi euskaldun zezen plaza aldera paseatzen zihoazela. Zortzi buru daude, eta argazkilaria jesarlekuan, ez da! "Hau da hau, bederatzi euskaldun Salamankan", dio. /Argazkia: Markel Barrena /Oñati



**AURRERAKUNTZA?** Argel-en ateratako argazkia, non antena parabolikoek ia teilatu eta balkoi guztiak gainezkatzen dituzten, eta paisaia oso kuriosoa eratzen dute. /Argazkia: Andoni Altube /Arrasate

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 22an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du, eta ez da adin mugarik izango.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri. **Arrasate:** Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500, edo Otalora Lizentziaduna 31, 20500. **Bergara:** Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570. **Aretxabaleta:** Durana 11, 2. solairua, 20550.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 1eko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Parte-hartzaileek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaiak baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta bizitasuna, besteak beste.
- Honez gain, Goienako beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

# ENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA



**www.goiena.net/blogak/argazkiak**



**ILUNABARRA.** San Juan de Gaztelugatxeko aparkalekutik aterata. Ilunabar hori afaltzen zeudela parez pare eduki zuten egileek. /Argazkia: Aitor Intza /Bergara



**EGUN HAIZETSUA COTATUERON.** Ordesan Faja de las Flores delakoa igaro ondoren, Cotatueroko Zirkoan ateratako argazkia, 2007ko abuztuaren 30ean. Argazkian, Haizea eta Orosoia agertzen dira, eta tenporizadorearekin aterata dago argazkia. /Argazkia: Haizea Agirre /Oñati



**ASTOAN.** Aurtengo abuztuan Setti-Fadman (Marruecos) ateratako argazkia da. Ez zegoen autorik; izan ere, astoak dira garraiobide garrantzitsuena. /Argazkia: Iñaki Agiriano /Arrasate



**BURUZ BEHERA.** Aramaioko Gureia Auzoan aurtengo udan aterata argazkia. Zuhaitza akazia bat da, eta bertan agertzen dena, argazkilaria bera, Antton Peña. Argazkia atera eta gero lurrera jausi zela argitu digu argazkilariak. /Argazkia: Antton Peña /Aramaio

## Sariak





**1. saria:** Olympus E-400 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
10 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 hazbeteko LCD pantaila





- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** Bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

**Babeslea:**
kutxa

**Laguntzaileak:**
kiñu argazkilariak
Arrasate Bidaiak
GURE AMETSA JATETXEA

**KOMUNIKABIDEAK** > TXAPA IRRATIA

# Txapa irratiak ikasturteko lehen kontzertua antolatu du

Lehen batzarrerako hitzordua ere jarri dute: irailaren 23an, 19:00etan, Bergarako gaztetxean

Kontzertua gaztetxean izango da egubakoitzean: Aterkings eta Ezin Izan taldeek joko dute



**MARKINARRAK** Aterkings talde markinarrak joko du gaztetxean. GOIENKARIA

**EDURNE BURGAÑA** > BERGARA

Bergarako Txapa irratikoek hasi dute ikasturtea. Lehen batzarrerako hitzordua prest dute, eta lehen kontzertua ere bai. Lehendabizi kontzertua izango da, datorren egubakoitzean. Batzarra hilaren 23an egingo dute, eta irekia izango da.

**ENTZUN ETA PARTE HARTU**

Irratiak uda partean eduki dituen arazo teknikoei aurre egin, eta hasi dute ikasturte berria: "Arazoak gainditu eta gogoz ekin diogu berriro ere uhinen iraultzari", diote eurek. Aurten ere 97.25ean entzun ahal izango dira irratsaioak: bai eurek ekoiztuak, eta baita Arrosa irrati saretik jaitsi eta entzuleei eskaintzen dizkietenak ere.

Aurtengo berrikuntza nagusienetakoa albistegiak izango dira. Izan ere, eguerdiro Info7 irratiko albistegiak entzun ahal izango dira. "Horretaz gain, goizetan Martin Garitanoren *Kale Gorrian* irratsaioarekin ere bat egingo dugu", azaldu dute.

Irratia entzun bakarrik ez, bertan parte hartzeko aukera ere badago. Irailaren 23an, Bergarako gaztetxean, Txapa irratiko batzarra egingo dute. 19:00etan izango da hitzordua, eta bertan, irratiaren funtzionamendua eta nondik norakoak azaldu, eta proposatzen diren irratsaio berriekin ikasturteko parrilla osatuko dute.

Bestalde, aurten ere, Txapa kontzertuekin jarraituko dute. Bergarako gaztetxean kontzertuak antolatu, taldeei elkarrizketak egin, zuzenean aireratu eta Arrosa irrati sarera igotzen jarraituko dute, Euskal Herriko uhinetan zabaltzeko.

Egubakoitzeko kontzertuari dagokionez, Aterkings markinarrak eta Ezin Izan andoaindarrek joko dute gaztetxeko eszenatokian.

**BERTSOLARITZA**

## Jokin Labaien, Lizardi Sariko finalean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Egubakoitzean jokatu zen, Zarautzen, 31. Bertsolari Gazteen Lizardi Sariko finala. Lehen kanporaketan irabazita, finalisten artean zen Jokin Labaien arrasatearra. Kanporaketan ondo jardun arren, finalean ez zuen bere onena eman. Beñat Gaztelumendik jaso zuen txapela, eta baita bertsorik onenaren saria ere. Azkenean, Jokin Labaien bosgarren izan zen.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

Bestalde, irailaren 22an abian jarriko den Gipuzkoako Txapelketan, ibarreko lau ordezkari izango dira. Irailaren 22an bertan, Legazpin jardungo du Iñigo Arzelus bergararrak; irailaren 30ean, Arrasaten, Ainhoa Agirreazaldegi elgetarrak; eta urriaren 6an, Jokin Labaien arrasatearrak eta Eñaut Uriarte bergararrak, Getarian eta Elgetan, hurrenez hurren.



JOSETXO ARANZABAL

## Andra Mari festak ospatu dituzte gatzagarrek asteburuan, giro ederrean eta eguzkipean

Leintz Gatzaga jaietan murgilduta egon da asteburuan. Izan ere, herriko jai handiak izan dira: Dorletako Andra Mari festak. Egubakoitzean hasi zituzten ospakizunak raflen ezkila emanaldiarekin eta bonba japoniarrekin. Egitarau zabala eduki dute gozatzeko gatzagarrek, eta erantzun ona eman dute.

Eguraldia lagun, jende mordoa ibili da herrian. Zapatuan, autobus geltokiko markesinan muturra sartuta, aparkatutako autoak ere ikusten ziren.

Meza nagusia egin zuten zapatuan Dorletako santutegian Eskoriatzako abesbatzarekin; ostean, adardunak egon ziren, eta umeendako jolasparkea ere bai. Eguna amaitzen joatean, herria afaria egin zuten, eta Laiotz taldeak girotu zuen gaua.

Atzo amaitu zituzten jaiak Gatzagan. Txikiteoa egin zuten, Batukadak lagunduta. Arratsaldean, pilota partiduak egon ziren, eta Malatu taldearen kontzertua ere.

**MUSIKA** > ROCK-AND-ROLLA

# Lagunarteko 'revival'-arekin egin zuen Radio Wings-ek azken kontzertua

Danel Markaide, taldeko abeslari eta gitarrajolea, Frantziara doalako utzi dute taldea

Gainontzeko taldekideek beste talde bat osatuko dutela aitortu dute

**IMANOL SORIANO** > ARRASATE

Gaueko hamaikak pasatxo hasi zen kontzertua. 150 pertsona inguru zeuden gaztetxean.

*Highest mountain* abestiarekin hasi zuen Radio Wings-ek bere azken kontzertua. Gogotsu ekin zioten rock gauari, eta hasieran ikusleak hotz bazeuden ere, segidan berotu ziren. Kontzertuan zehar, sorpresak izango zirela iragarri zuten. Taldearen abesti pare bat jo zituzten.



**MUSIKARIAK** Danel Markaide, ezkerrean, eta Enaitz Etxeberria, eskuman, emanaldiko une batean. JOSETXO ARANZABAL

**BERTSIO UGARI**

Egubakoitzeko kontzertua, Radio Wingsena baino gehiago, revival kontzertua izan zen. Bertsio ugari egin zuten kontzertuan zehar: Kiss, Los Bravos, Tequila edo Ed Nugent-enak, besteak beste. Ikusleek bertsioekin gozatu zuten.

Halako batean, taldeko baxujoleak eskatuta, *Purito* igo zen eskenatokira beraiekin abestera. Fase Terminal taldeak Arrasateko gaztetxean eman zuen lehenengo kontzertuan eszenatokira igo zen, eta azken kontzertuan ere gonbidatu egin zuten. Hainbat abestitan kolaboratzaile lanak egin zituen arrasatear horrek taldea Chicos Boom deitzen zen garai haietan.

**ERROETARA BUELTA**

Gaueko lehenengo ezustekoa heldu zen. Taldearen erroetara bueltatu ziren. Radio Wings 2002 .urtean sortutako taldea da eta Fase Terminal taldetik dator. Urte horretan, Arrasateko gaztetxearen urtemuga jaia egin zuten, eta bertan jotzeko sortu zen. Hala, egubakoitzean, hasitako leku berean eman zioten bukaera taldeari.

Gaueko bigarren ezustekoa: Danel Markaide Frantziara doala eta, erregalu bat eman zioten. Enmarkatutako argazki *collage* bat zen, Fase Terminal, Chicos Boom eta Radio Wings taldeetako argazkiak agertzen ziren, eta gainean, taldearen logotipoa.

Taldearen azken kontzertua izan zen egubakoitzekoa. Izan ere, abeslaria, Danel Markaide, Frantziara doa: "Bagenekien kanpora zihoala. Orain, gainontzeko hirurok beste talde bat osatuko dugu, baina okerrena da hasieratik hasi behar dugula guztia egiten", azaldu taldeko kide Borja Henandezek.

Ibilbide gorabeheratsua eduki du taldeak: "Zorte txarra eduki dugu, ezin izan ditugu kontzertu asko lortu; eta hori saiatu garela. Baina musika egiten jarraitzeko gogoa daukagu", gehitu du Hernandezek.

Hiru taldekideek aurrerantzean ere dakitena egiten jarraituko dutela aitortu arrasatearrek: rock-and-rolla.

**ARTEA** > ERAKUSKETA

# Iñigo Arregiren 'Bidean' bilduma, Aroztegin ikusgai

Margolanak, eskulturak eta grabatuak biltzen ditu erakusketak: guztira, arrasatearraren 33 lan

**E.B.** > ARRASATE

Iñigo Arregi artista arrasatearraren erakusketa zabalik dago, hilaren 16ra arte, Bergarako Aroztegi Aretoan. Eskultura, pintura eta grabatu lanak biltzen ditu *Bidean* izeneko erakusketa horrek.

**"EGITEKO ASKO GERATZEN ZAIT"**

Iñigo Arregiren artelanak Aroztegi museoan ditugu ikusgai egunotan; astegunetan, arratsaldeko seietatik zortziak eta erdira arte, zapatuetan goizeko hamabietatik ordu bietara eta seietatik zortziak eta erdietara, eta domeketan, goizeko hamabietatik ordu bietara.

Formatu handiko 10 bat olio, 15 eskultura eta zortzi grabatu batzen ditu Aroztegiko erakusketak. Hiru estiloak lotuta daudela dio Arregik. "Harreman handiko obrak dira", argitu du artistak. Jarritako izenaren arrazoia ere azaldu du: "53 urte ditudan arren, artista bezala oraindik gaztea naiz. Egiteko asko geratzen zait, eta bidean nagoelakoan nago. Horregatik jarri diot *Bidean* izena lanari".

Azken hogei urteotan egindako lanak dira erakusketakoak. "Baina ez daude kronologikoki jarrita. Ez nuen nahi zerbait didaktikoa-edo izaterik. Kontzeptu aldetik berdinak izaten jarraitzen dute lanek, baina ezberdintasunak igartzen dira: kolore biziagoak erabiltzen ditut orain, eta geometrika gehiago ere bai", azaldu du Arregik.

Arrasaten duen dendan, beste artista batzuen lanen erakusketak antolatzen ditu Iñigo Arregik. Oraingoan bere txanda da, baina Bergarako Aroztegi aretoan. Oraindik bertatik pasatu ez direnek domekara arteko epea dute arrasatearrak azken bi hamarkadetan egindako 33 lan ikusteko.



**DENETARIK** Iñigo Arregiren margo, eskultura eta grabatu lanak daude *Bidean* erakusketan. JOSETXO ARANZABAL

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Erdialdean, 72 m2-ko txapitula (buhardilla), 16 m2-ko garajearekin. Merkea. Deitu 659 64 67 38 zenbakira.

**Arrasate.** Grupo San Juanen. 60 m2 erabilgarri. Azkeneko solairua, igogailuarekin. Ganbara, sotoa, oso eguzkitsua, bakarkako berogailua. Bizi izatera sartzeko. 619 25 46 69.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m2. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Altzariekin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 615 75 96 36.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. 81 m2. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta trastelekua. Oso eguzkitsua. Egoera onean. 652 73 22 83.

**Bergara.** Baserria salgai. Berriztatuta. Bi solairu ditu eta tailerra azpialdean. 300.000 euro. 660 04 58 60.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. 97 metro koadro. 3 logela, bainua. Eguzkitsua eta bista ederrekin. Egoera onean. Garajea ere aukeran. 655 71 03 23 edo 943 25 05 01.

**Bergara.** Erdialdean. Bizitzera sartzeko gertu. Oso polita. Eguzkitsua. 685 72 40 30.

**Bergaran** etxebizitza salgai, Zubiaurre kalean. Erabat berritua dago, berogailu eta ganbararekin. 619 41 39 72.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai San Pedron. Guztiz berritua. 73 m2, 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Eguzkitsua. 615 70 99 18.

**Eskoriatza.** Duplexa salgai. 110 metro koadro. Bizitzera sartzeko moduan. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela, jangela eta garajea. 618 28 80 14.

**Eskoriatzan** etxebizitza salgai, 80 m2. Garajea eta trastelekua ditu. 686 92 55 71.

**Eskoriatzan** etxebizitza salgai, Intxartxueta kalean. 71 metro koadro. 2 logela, egongela, sukaldea, balkoia, ganbara, igogailua eta berogailua. Guztiz jantzita. Berehala emateko. Prezio negoziagarria. 650 01 67 38.

**Ezkarai.** Ezkaraiko kanpinean dagoen egurrezko etxebizitza salgai. Partzela propioarekin. Igerilekua, tenis pista eta txokoa ere badauzka. 685 70 17 92.

**Getaria.** Etxea salgai. Hondartzari begira. 60 metro koadro. Estreinatzeko. 699 18 75 68 edo 943 25 05 01.

**Luz Saint-Sauveurren** apartamentua salgai (prezio negoziagarria) edo errentan ematen da eski sasoi osorako. Deitu 607 80 42 38 telefonora.

**Oñati.** Apartamentua salgai. Erdialdean. Oso argitsua. Bi logela, sukalde-egongela, bainugela eta trastelekua. 605 77 46 79 edo 695 78 76 51.

**Oñati.** Duplexa salgai zentroan. Lau logela, bi komun, sukaldea, egongela eta garajea. 670 85 85 41.

**Oñati.** Duplexa salgai. 100 m2 erabilgarri. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñatin** etxebizitza salgai, Zubillaga auzoan. 79 m2. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela bat eta ganbara. Oso egoera onean eta berritua. 697 57 77 44 edo 635 71 41 39.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hiru logela, sukaldea eta komuna. Eskola Politeknikotik gertu. 550 euro. 605 73 82 74 edo 943 53 64 55.

**Arrasate.** Iturriotz kalean 3-4 ikaslerentzako etxe aproposa errentan ematen dut; Arrasate erdi-erdian. 629 23 93 48.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da, ikasleendako. Unibertsitatetik gertu. 945 44 52 42 edo 680 28 87 98.

**Arrasate.** Makatzena auzoan etxebizitza emango nuke errentan. 615 75 84 09.

**Bergara.** Bolun. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 943 76 07 89.

**Donostia.** Bi neska ikaslerendako etxea errentan Donostia erdialdean, 2007-08 ikasturterako. 620 06 35 92.

**Donostia.** Datorren ikasturterako etxebizitza errentan ematen dut. Amara Zaharrean. Bi logela. 685 73 34 45.

**Eskoriatza.** Hiru logela, egongela, sukaldea guztiz hornituta eta komuna. Berogailua. Telebista. Egoera oso onean. Deitu 686 30 67 89 zenbakira.

**Otxandio.** Etxebizitza errentan ematen da. Jantzita. Garajea ere aukeran. 615 00 88 15.

**Oñati.** Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, ikasturtean zehar bakar-bakarrik. Deitu 660 40 06 75 zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Etxea errentan hartuko nuke. 636 49 46 87.

**Bergara.** Bergaran edo inguruan errentan hartuko nuke etxe txiki bat; jantzita badago hobeto. 630 86 41 59.

**Bergara.** Etxea hartu nahi dut errentan. 629 75 30 51 edo 943 25 05 01.

**Debagoiena.** Lau ikaslek etxebizitza errentan hartuko lukete urriaren hasieratik urtarrilaren bukaera arte. Seriotasuna. 656 77 66 32.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 655 70 30 37 edo 676 59 66 38.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaion** etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 699 28 99 06.

**Arrasate-Eskoriatza.** Erasmus ikasle batentzako logela bat behar da irailetik otsailera arte. Seriotasuna. 656 77 66 32.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Unibertsitatetik gertu. Logela propioa. 625 83 53 41.

**Bergara.** Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Deitu 605 76 98 97 zenbakira.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**

**Denda baten saltzaile lanak egiteko neska bat behar da.**
**660 68 13 55**

**ARRASATE**

**Taberna baten lan egiteko zerbitzari euskaldunak behar dira.**
**670 42 21 08**
**617 20 59 45**

**BERGARA**

**Txamonix tabernak zerbitzari euskaldunak behar ditu.**
**615 00 36 91**

**Eskoriatzan** ikasle-etxebizitza bat osatzeko pertsona bat behar da. Unibertsitate ondoan. 653 13 93 08 edo 606 20 19 48.

### 106. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Logela bat errentan ematen da, Obenerreka kalean. 628 10 52 16.

**Bergara.** Logela bat errentan ematen dut. Gainerako guneak erabiltzeko eskubidarekin. 184 euro; gehi gastuak. Dieu 695 70 04 17 zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aramaio.** Gabirel Jauregi kaleko 2. zenbakian garajea salgai. 945 44 54 13.

**Aramaio.** Garajea salgai. Pedro Inazio Barrutia kalean. 22,66 metro koadro. 945 44 51 11.

**Arrasate.** Garajea salgai Eguzki dorrean. 20,16 metro koadroko azalera du. Deitu 943 79 43 39 telefonora.

**Arrasate.** Uarkapen 12 $m^2$ko garajea salgai. 609 44 61 92.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia emango nuke errentan Kontzezino kalean. Deitu 660 96 90 45 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Olarten, erdialdean. Deitu arratsaldez, mesedez, 616 70 78 91 zenbakira.

**Bergara.** Ibargarai kalean garajea errentan ematen da. Deitu 627 90 74 48 telefonora.

**Bergara.** Ibargarai kaleko 17. zenbakian. 15 $m^2$. Deitu 626 04 82 24 telefono zenbakira.

## LAN ESKAINTZA

**Sukaldeak eta armairuak saltzen diren denda batean, pertsona bat behar da.**

**ESKATZEN DA**
**AUTOCAD erabiltzen jakitea.**
**Euskara jakitea.**

**ESKAINTZEN DA**
**Zortzi orduko lan-jarduna.**

**Interesatuok deitu 943 76 11 73 telefonora 8:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 18:00etara.**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Angiozar.** Etxeko lanak egiteko norbait behar dugu; astean 4-6 ordu. 652 77 83 06 edo 945 01 97 58.

**Arrasate.** Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Santa Teresa auzoan. Egunero ordu eta erdi. 649 66 49 85.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egiteko. 615 70 72 41.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. 669 53 97 03.

**Bergara.** Irakasle ikasketak egiten ari den lagun bat behar da seigarren maila egingo duen ikasle bati eskola partikularrak emateko. 658 70 73 17.

**Bergara.** Pertsona bat behar da 7 eta 10 urteko bi ume zaintzeko arratsaldeetan, 16:30etik 20:30era. 628 48 52 34.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko goizetan, 08:00etatik 12:00etara. Ezinbestekoa da janaria prestatzen jakitea. 628 48 52 34.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea prest orduka etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. 646 77 85 31.

**Arrasate.** Neska prest etxeak edo behebarruak garbitzeko. 663 04 53 99.

**Arrasate.** Orduka etxeko lanak egiteko edota haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientziadun neska. 943 77 16 73.

**Bergara edo Antzuola.** Emakume bat gertu tabernak eta atariak garbitzeko. 696 84 19 51.

**Bergara.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. Etxean bizi izateko ere gertu. Esperientziaduna. 638 23 37 39.

**Bergara.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. Etxean bizi izateko ere gertu. Esperientziaduna. 659 57 93 89.

**Bergara.** Emakumea gertu orduka lan egiteko; goizetan edo arratsaldeetan. Esperientziaduna. 638 89 19 81.

**Bergara.** Emakumea gertu sukaldeko lanak, garbiketa lanak edo pertsonak zaintzeko, goizez. 620 42 31 45.

**Bergara.** Garbitasun lanak egiteko prest emakume bat, 17:00etatik aurrera astelehenetik egubakoitzera. Gauetan pertsona nagusiak ere zaindu ko lituzke. 619 92 40 86.

**Bergara.** Gizon bat gertu gauetan edo asteburuetan lan egiteko. Erreferentzia onak eta esperientzia. 696 38 10 07.

**Bergara.** Gizon bat gertu ilea mozteko, baita etxez etxe ere. Beste edozein lan ere egingo luke. 648 87 53 27.

**Bergara.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izanda. Esperientziaduna. 635 86 11 29.

**Bergara.** Neska bat gertu lanerako astelehenetik egubakoitzera. 688 64 64 26.

**Bergara.** Pertsona nagusiak nahiz umeak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo beste edozein lanetarako gertu emakume bat. Orduka. Esperientzia eta erreferentzia onak. Deitu 699 26 95 74 zenbakira.

**Bergara.** Tabernak, bulegoak edo atariak garbitzeko gertu dago emakume bat. Paperak ditut. 680 77 34 77.

**Bergara** edo Arrasate. Emakume bat gertu etxe barruan lana egiteko. 638 23 37 39.

**Debagoiena.** Emakume euskaldun batek edozein motatako lanak egingo lituzke. 659 82 75 18 edo 943 25 05 01.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo adinekoak zaindu nahiz garbiketa lanak egiteko. 600 31 18 39.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldean lan egiteko. Esperientziaduna. 660 36 44 99.

**Debagoiena.** Neska euskalduna dendan lan egiteko prest. 690 14 36 68.

**Debagoiena.** Neska gazte bat gertu dago umeak zein nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile nahiz zerbitzari lanak egiteko. 663 46 93 60.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Irakaslea.** DBHko eskolak ingelesez emateko irakaslea behar da. 616 33 05 46.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Aretxabaleta.** Ingelesezko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Arrasate.** LHko eta DBHko eskola partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Seriotasuna eta esperientzia handia. 658 70 67 84.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Opel Astra** salgai. 606 94 35 50 edo 617 13 17 51.

**Seat** Inca. 3 urte ditu eta 30.000 kilometro. Egoera onean. Aire girotua dauka. 6.200 euro inguru. 629 91 80 15.

**Trialeko motorra** salgai. 1998koa. Munduko txapeldunaren motorraren erreplika. 1.900 euro. 699 37 15 11.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak.** Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. Pedigri onekoak. Goizez deitu. 660 05 98 23.

### 704. BESTELAKOAK

**Txori bat** aurkitu genuen abuztuaren 19an Arrasateko Juan Carlos Guerra plazan. Larua da eta luma beltzak ditu buruan. Zeurea bada edo zuretako gura baduzu, dei egizu. 661 73 37 92.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Game Boy,** hiru joko, zorroa eta kargatzailea salgai. Oso ondo zainduta daude. 656 79 88 12.

**Jaunartzerako arropa** salgai. Jaka urdina eta marradun alkandora. Oinetakoak opari. 943 79 41 31.

**Karabana** Knaus markakoa. 2005. urtekoa. Hiru gune ditu eta estra guztiak. 620 39 69 47

**Karabana** Mutrikun, zazpi metrokoa. Abantzea, kalefakzioa eta ur berogailua, komuna, dutxa eta sukalde hornitua. Mutrikuko Santa Elena kanpinean jarrita. 652 75 03 61.

**Karro-denda** salgai. 6 lagunendako. Egoera oso ona. Armairuak, sukaldea eta gehigarri guztiekin. Deitu telefono honetara. 645 73 13 94.

**Mendi bizikleta** salgai. Bochentia marka: 54 neurrikoa, rockshop esekidura, Shimano aldagailuak. 800 euro. 617 78 74 07.

**Ohe** bikoitza salgai. Deitu 635 73 27 84 zenbakira.

**Orbea** errepiderako bizikleta salgai. 400 euro. 667 66 12 40.

**Snow-ohola** salgai. Bi aldiz erabilita. Nitro markakoa. Drake loturak eta 43-44 zenbakiko botak. Deitu 645 72 25 24 telefono zenbakira.

**Sofa** Relax salgai. Oso egoera onean. 250 euro. 665 73 65 95.

**Teleskopioa** salgai. Astrolon markakoa. 402 potentzia. 943 79 41 31.

**Umea** eramateko motxila bat eta automobilerako aulkia salgai. 635 73 27 84.

**Umearendako segurtasun aulkia** salgai. Autoan erabiltzeko. Babybeal markakoa. Deitu 943 79 41 31 telefonora.

### 802. EROSI

**Lursaila** erosi edo errentan hartuko nuke debagoienan ortua egiteko. 699 40 73 35.

**Lursaila** erosi nahiko nuke Eskoriatza inguruan, bertan ortua egiteko. 649 31 20 05.

**Numismatika.** Bankuko antzinako billeteak eta txanponak erosiko nituzke. 688 61 85 02.

### 805. TRUKATU

**Lursaila** erosi edo errentan hartuko nuke Debagoienean bertan ortua egiteko. Deitu 699 40 73 35 zenbakira.

### 806. GALDU

**Debagoiena.** Arantzazutik Oñatirako bidean, Arrasateko mutil baten autoan utzi nituen ahaztuta graduatutako betaurrekoak. Mesedez, autoaren jabeak dei diezadala. Deitu 653 74 74 51 telefono zenbakira.

**Elgeta.** Emakumezko jaka bakeroa eta umearen sudadera galdu ditut. Deitu 607 81 84 29 telefono zenbakira.

**Txandal txaketa** gorria galdu dut Bergaran. Segur aski parkean. 943 03 87 54.

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Bizikleta aurkitu dute Loramendi kalean. Umearena da. 943 79 58 98.

**Bergara.** Belarritakoa (uztaia) aurkitu dut. 696 90 53 19.

**Erloju** bat aurkitu nuen abuztuaren 13an Uribarri Ganboan. Inskripzio bat dauka. Deitu 669 65 48 87 zenbakira.

**Oñati.** Autoa ireki eta ixteko telekomandoa aurkitu dugu Oñatiko sarrerako errepidean. Fiat markakoa. Mari Kruz. 635 00 52 68 edo 943 25 05 01.

**Iraialak 10: 141. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 10, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Markak Gernika 1937 Bernardo Atxagaren azken liburuaren bi ale.**
- Pedro Arriaran Larrañaga (Oñati)
- Mariasun Ariznabarreta (Bergara)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**142. zozketako saria**




**Euskal Herria aldizkariaren bi pack: Urteko aldizkari guztiak**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
**902 36 38 51**
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
**18 euro**
2007 bukaera arte.

Asteleheneko Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 10



**> Ibarreko futbol taldeei jarraipena 'Harmailatik'-en 21:15**

Xabier Urtzelaik aurkeztuta, preferente mailako hiru taldeek ligako lehenengo jardunaldian egin dutenaren jarraipen zabala.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Teknopolis.
**14:15** Hitz bitan.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Klip@.
**16:15** Kirolari.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ur eta Lur.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Berriak.
**19:15** Musikantoi.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ikusmira.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 11



**> Julen Iriondo kazetariarekin, 'Berbaire' saioa 21:47**

Oxel Erostarbe, Ander Rodriguez, Andoni Gartzia, Pello Urizar eta Aitor Arantzabal izango dira berbetan mahaiaren inguruan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:45** Berriak.
**15:15** Eltze beroa
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Harmaillatik.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean .
**18:15** Klip@.
**18:45** Berriak.
**19:15** Harmaillatik.
**19:45** Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Horry
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea
**22:15** Harmaillatik.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 12



**> 'Zaharrak Berri', nagusiei eskainitako tartea 20:15**

Aitziber Aranburuzabalak aurkeztuko du GOITB-ko saio berria. Oñatiko Arrikrutz koben gaineko erreportajea eskainiko dute.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Klip@.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Harmaillatik.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Teknopolis.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ur eta lur.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 13



**> The Hot Dogs taldearen kontzertua 21:47**

Ixone Serranok aurkeztuko du The Hot Dogs taldeak Arrasaten emandako kontzertua. Euskal Herriko eta kanpoko rock ikonoa izan da taldea.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Zaharrak berri.
**13:45** Gaurkoak.
13:47 Marazki bizidunak.
**14:15** Ikusmira.
**14:45** Berriak.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Erreportajea.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Eltze beroa.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ur eta lur.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera

### Egubakoitza, 14



**> 'Calimero' txita beltzaren abenturak 13:20, 17:15, 20:15**

Etxeko txikienek Calimero txita beltzaren abenturekin gozatzeko hiru aukera izango dituzte gaur: 13:20, 17:15 eta 20:15ean dira emanaldiak.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Musikantoi.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ikusten.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Eltze beroa
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Programa berezia.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Kirolari.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> 'Uda giroan!', beste aste betez gurean 10:00**

Beste aste betez, eta udako azken egunak aprobetxatuz, *Uda giroan* saioa eskainiko dute. Donostiako Aquariumean izango dira eta, gainera, sarrerak zozketatuko dituzte. Bestalde, Joxe Landak eguraldiaren berri emango du.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda giroan!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia
**14:00** Uda giroan! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua
*Uda giroan*! saioaren asteko gainbegiratua egingo dute. Bertan, astean zehar izan diren hainbat albiste eta bitxikeria gogoratuko dituzte

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua

## gertutik



**Oihana Elortza**
Kazetaria

# "Egunerokotasuna jarraitzeko entzuten dut irratia"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Oihana Elortza kazetari oñatiarra *Ilunpean* saioa aurkezten ikusten dugu GOITBn; astero, ezaguna den pertsonaia baten bizipenak ekartzen dizkigu pantaila txikira. Kazetari ibilbidea Euskadi Irratian hasi zuen; eta, gero, telebistara pasaru zen. Orain, *Goienkaria*-n eta ASTELEHENEKO GOIENKARIA-n ere idazten du; Oñatiko eta Bergarako berriak ematen ditu eta elkarrizketak egiten ditu, besteak beste.**

**Oñatiarra jaiotzez, orain, Bergaran bizi zara. Nongotzat duzu zure burua?**

Oñatiartzat; ni oñatiarra naiz.

**Irratia, telebista eta prentsa idatzia ezagutu dituzu. Zein duzu gustukoen?**

Egia esan, irratian denbora gutxi ibili naiz; hortaz, gutxien ezagutzen dudan hedabidea dela esan daiteke. Telebistan, ordea, denbora gehiago eman dut, eta gehiago ezagutzen dut. Orain, berriz, prentsa idatzian ere banabil; samur egokitzen naiz hedabide ezberdinetara.

**Baduzu kazetaritzan erreferenterik?**

Ez, ez dut kazetari jakin bat jarraitzen. Gainera, telebista gutxi ikusten dut; gero eta gutxiago. Informatiboak jarraitzen ditut gehien.

Lantokian eta etxean, irratia entzuten dut; egunerokotasuna jarraitzea gustatzen zait, baina ez dut kazetari jakin bat jarraitzen. Batzuk gustuko ditut, eta beste batzuk, ez. Bestalde, nik nire lanerako erabili ahal dudan informazioa jasotzeko ere entzuten dut irratia.

**Nor ekarriko zenuke gustura *Ilunpean*-era?**

Gabonetan, adibidez, Porrotx ekarri genuen. Ilusio handia egiten zidan bera etortzea, eta oso ondo pasatu genuen. Hurrengo baterako, adibidez, Mikel Goñi ekartzen saiatuko gara.

**Zaila izaten da gonbidatuari berba egin eragitea?**

Bai, zaila da, baina sorpresa asko hartu ditut. Batzuetan, espero ez dudan gonbidatu batek gauza mordoa esan izan dizkit; baina, beste batzuei, gehiago kostatzen zaie.

## asteko hitzorduak

### Antzerkia



OÑATI

**> 'Kontu kontari' ipuin kontaketa musikatua kultura etxeko zineman**

Koldo Ameztoik eta Pantxix Bidartek egingo dute, Iparraldea Oñatin ekimenaren barruan, *Kontu kontari* ipuin kontaketa musikatua. Etzi, eguaztena, izango da, 19:30ean, kultura etxeko zinema aretoan.

### Pintura



BERGARA

**> 34. Ageriko margo lehiaketako lanak ikusgai egongo dira egunotan**

Gaur hasi eta hilaren 22ra arte ikusgai egongo dira San Martin jaietan Bergarako Artisten Elkarteak antolatutako ageriko pintura lehiaketan parte hartu duten artisten lanak. Kultura etxean izango da erakusketa.

### Lehiaketa



ARETXABALETA

**> Oporretako argazkien lehiaketa antolatu du Urbaltz tabernak**

Irailaren 23a baino lehenago aurkeztu beharko dira lehiaketara argazkiak. Udako argazkia izan behar da eta, 18x24 cm-ko neurrian inprimatuta aurkeztu behar da Urbeltzen. Argazkiko 2 euro ordaindu behar da.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Jairik jai erromesaldia irailean

Arantzazun izan dira Aldundiko eta Jaurlaritzako agintariak, Oñatikoekin batera, **Arantzazuko Ama Birjinaren** eguna ospatzen. Goizeko 7etan jaiki, eta erromesaldian gora joan zen ugari ere egongo da. Beste mordoa, berriz, **Atzeko kale**ko jaiak ospatzen arituko ziren ordu horietan, etxera erretiratu gabe. Gipuzkoako lehenengo mirariaren omenez! esango zuten...

Beste mordoa, berriz, estropadetan izango ziren atzo. Gu barnealdekoak gara, baina parranda non, gu han!

**"Anton Azpiazuk txokolateari buruzko liburua aurkeztuko du Unibertsitatean"**

Berdin da nork irabazi zuen, garrantzitsua ondo pasatzea da. Eta, bide batez, gorputza bustitzea.

Datorren egubakoitzean, **Anton Azpiazu**k txokolateari buruz idatzi duen liburua aurkeztu behar du Unibertsitatean: *La amargura del cacao y la magia del chocolate en Oñati*. Bildutako dirua **Guatemala**ra bideratuko du, hango haurrak eskolara joan daitezen. Kontuan hartzeko hitzordua, duda barik.

Iraila hile polita izaten da Oñatin; jairik jai ibiltzeko modua eskaintzen du eta hainbat ekitaldi antolatzen dira. Jaiak ere gainean dira: aurten, gainera, Arrasateko **Maritxu Kajoi** eguna, Oñatiko **Herri Eguna** eta **Kilometroak** Bergaran aste bukaera berean izango dira. Puff!

asteburuko albuma



**Saharako umeei agurra.** Oporretan Arrasate, Oñati eta Eskoriatzara etorritako ume sahararrak agurtzeko afari-merienda egin zuten eguenean Arrasateko Txitxinpe tabernan Nubi elkartekoek. Tindoufeko kanpalekuetara bueltan dira 15 umeak, uda gurean pasatu eta gero. Gainera, umeetako bati, Salmari, hain zuzen ere, abuztuaren hasieran ebakuntza egin zioten eskuetako arazoak konpontzeko. Aurrez ere egin zioten ebakuntza, orain dela bi urte, eta hura hobetzea zen helburua. Nubikoak oso pozik daude, arazorik ez dutelako izan, eta balorazio positiboa egin dute.



**Arrasatearrak Hondarribiko Alardean.** Arrasateko 20 lagun inguru, Maritxuko komisiokoak batzuk eta Alardera joateko ohitura dutenak beste batzuk, Hondarribiko Alarde mistokoei elkartasuna adieraztera joan ziren zapatuan. Kale nagusian mozorrotuta azaldu ziren, eta emakumeen parte-hartzea aldarrikatuz, manifestazioa egin zuten; izan zen desfilean parte hartu zuen arrasatearrik ere. Bazkaria Olagarru elkartean egin zuten, hondarribiarrak eurak ere Arrasaten egonak direnez, gonbidatu egin baitzituzten. Ondo pasatzeko ez ezik, konpainia mistokoei laguntzeko aprobetxatu zuten bisita.



**Atzeko Kaleko jaiak.** Aste bukaeran jaiak izan dira Oñatiko Atzeko Kalen. Jendeak jaiekin gozatu du eta, batik bat, txorimaloetan eta zezentxoetan ibili dira oñatiarrak, antolatzaileen esanetan. Gau giroan, kontzertuak izan du arrakasta handien. Bestalde, urtero moduan, salda banatu zuten zapatuan Manolo Irizarren omenez, baina, aurtengoan, ekitaldiak izan du berezitasunik. Bertsolariek Margarita *Naparrena* izan zuten kanturako gai. Izan ere, zozketa txartelak saltzen laguntzen die jai batzordekoei 95 urteko emakume hone,k eta omenaldi xumea egin nahi izan zioten bertsoekin eta baita lore sorta emanez ere.



**Kurtzebarri Eguna ospatu zuten aretxabaletarrek.** Eguraldi ederra izan zuten lagun aretxabaletarrek, eta 200 lagunetik gora elkartu ziren atzo, domeka, Kurtzebarri Eguna ospatzeko. Umeak asko ziren; txikienak motxiletan igo zituzten gurasoek Kurtzebarrira, eta haunditxoagoak, oinez igo ziren. Erroman dagoen eta San Biatorren erlijiosoen bikario nagusia den Goio Eskibelek esan zuen meza. Bestalde, tripa-zorriak baretzeko, Murrukixo Mendi Elkarteak salda beroa eskaini zuen lehenengo, eta gazta eta txorizoa gero. Ondo hasi eta ondo bukatu zen eguna.

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle**.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

hildakoak

• **Ramon Eguren Zangitu.** Bergaran, irailaren 7an. 88 urte.

• **Francisco Cubillo Lozano.** Aretxabaletan, irailaren 8an. 66 urte.



ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen: **943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.**

## zorion agurrak


ESKORIATZA
**Arane Zubia**
Abuztuaren 4an urtebetetzea. Zorionak eta ea ze merendola prestatzen diguzun! Muxu haundi bat.


ARRASATE
**Markel Aranburu Zubia**
Abuztuaren 28an. Zorionak, Martxelo, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko guztien partetik!


ARRASATE
**Nerea Urrizalki**
Irailaren 2an, urtebetetzea. Zorionak familia guztiaren partetik!


ELGETA
**Unai Zabala**
Irailaren 6an, 4 urte. Zorionak, Unai! Familia guztiaren partetik, muxu potolo bat!


ARETXABALETA
**Oier Zumarraga**
Irailaren 7an, 5 urte. Zorionak, pirata, eta ondo-ondo pasatu. Basabeazpiko lagun guztiak.


BERGARA
**Ziortza Ibaibarriaga**
Irailaren 7an, 5 urte. Zorionak! Etxekoak eta bereziki Endika, Iker eta Jon.


ESKORIATZA
**Naroa Esnal Calero**
Irailaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, Naroitaaaa! Egun on bat pasa zenuelakoan eta ez zenuelakoan lan gehiegi egin! Patxo haundi bat kuadriilakoen partetik!


BERGARA
**Leire Agirre**
Irailaren 8an, 10 urte. Zorionak familiaren partetik!


BERGARA
**Alex Azkarate**
Irailaren 8an urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik.


ARRASATE
**Aner Iriarte Balerdi**
Irailaren 9an, 4 urte. Zorionak, Malen, Naroa eta familiako guztien partetik.


ARRASATE
**Andoni Uribesalgo**
Irailaren 10ea,n urtebetetzea. Zorionak! Egun ona pasa eta muxuak. Ziorlakuen partetik.


BERGARA
**Beñat Pelicano Sotil**
Irailaren 13an 8 urte. Zorionak etxekoen partetik, bereziki Naroak.


ARRASATE
**Ainhoa Urrizalki**
Irailaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, familia guztiaren partetik!


ARRASATE
**Oxel Arriaran**
Irailaren 16an, 4 urte. Zorionak eta milaka muxu, Txomin eta familia guztiaren partetik.


ARRASATE
**Haizea Arenaza Pagaldai**
Irailaren 16an urtetxo bat. Zorionak, sorgintxo, etxekoen partetik!

# ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## jaiotakoak


**Imanol Rodriguez Andres**
Arrasate > 3, 860 kilo. Irailaren 2an. Gurasoak: Susana (Gasteiz) eta Gregorio (Arrasate). Argazkian, umea kumatxoan gustura lo.


**Izar Zuazo Oianguren**
Arrasate > 3,800 kilo. Irailaren 2an. Gurasoak: Silvia (Arrasate) eta Iñigo (Iurreta). Argazkian, ume jaioberria Maria Eugenia amamarekin.


**Alluitz Lazkano Gorostiza**
Aretxabaleta > 3,380 kilo. Irailaren 2an. Gurasoak: Leire (Aretxabaleta) eta Esteban (Bergara). Argazkian, haurra Jose eta Maria Jesus aitaita-amamekin.


**Izaro Elortondo Viñaras**
Aretxabaleta > 4,000 kilo. Irailaren 2an. Gurasoak: Nerea (Elgoibar) eta Iban (Aretxabaleta). Argazkian, umetxoa, amaren besoetan.


**Xabier Sandoval Pozo**
Arrasatea > 3,820 kilo. Irailaren 3an. Gurasoak: Rakel (Arrasate) eta Jabi (Arrasate). Argazkian, ume jaioberria txupetea ahoan duela kuman.


**Ander Navarro Vicente**
Arrasate > 3,430 kilo. Irailaren 4an. Gurasoak: Ainhoa (Arrasate) eta Ruben (Arrasate). Argazkian, umea, amaren besoetan.


**Unai Lopez Hernandez**
Arrasate > 3,900 kilo. Irailaren 4an. Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Edu (Arrasate). Argazkian, umea, Mirari erizainaren besoetan.


**Paula Calvo Conde**
Aretxabaleta > 3,450 kilo. Irailaren 6an. Gurasoak: Esther (Arrasate) eta Ibon (Oiartzun). Argazkian, haurtxoa amama Maribelekin.


**Haizea Azkorbebeitia Elortza**
Oñati > 3,400 kilo. Irailaren 8an. Gurasoak: Jone (Oñati) eta Mikel (Iurreta). Argazkian, haur jaioberria bere kumatxoan lo.


**Eneko Diaz Ignacio**
Eskoriatza > 3,500 kilo. Irailaren 8an. Gurasoak: Montse (Eskoriatza) eta Elias (Reinosa). Argazkian, umea kuman.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2007-09-10

**Enaitz Alustiza** > Ikaslea eta bertsolaria

# "Txekiara panderoa ere eramango dut, noski"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Bergarako Ubera auzoan bizi da Enaitz Alustiza. Bertsotan egiteko eta han edo hemen panderoa jotzeko astia ere ematen diote ikasketek. Urriaren hasieran, Txekiara doa, ikasketa proiektua egitera.**

**Errepide mapak dio 1.922 kilometro daudela Bergaratik Pragara.**

Bizikletan egiteko askotxo dira, bai. Hasieran, pentsatu nuen autoz joatea, han ere erabiltzeko, baina nahiko auto eskasa da nirea, hemendik Arrasaterako joan-etorria egiteko modukoa. Beraz, hegazkinez joatea pentsatu dut. Zumaiako lagun bat eta biok goaz.

**Pozik zaude?**

Badut gogoa, bai, baina joan arte urduri egongo naiz. Orain arte ez naiz inoiz ikasle etxebizitzan edo antzerakoan egon, eta badut hori probatzeko gogoa ere.

**Panderoa eramango duzu?**

Bai. Diote euskaldunak mundu osoan gaudela, eta soinua jotzen duen bat topatzen badut han, oso ondo; bikotea sortuko dugu berehala eta trikiti soinuak entzungo dira Txekian.

**Bertsotan ere egingo duzu.**

Zumaiako lagunak entzungo ditu bertsoren batzuk bederatzi hilabete horietan, bai.

**Zer moduz konpontzen zara sukaldean?**

Bakarrik egonda ere, ez naiz bazkaldu edo afaldu barik geldituko, baina ez naiz aparteko sukaldaria. Baina zumaiarra ona ei da, beraz, arazorik ez.

**TEST-A**

**Herria:** Ubera, Bergara. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Ingeniaritza elektronikoa nabil ikasten. **Zaletasunak:** Bertsolaritza, kantatzea eta musika. **Ze CD duzu momentu honetan autoan?** Oiartzungo bertso eskolak atera duen bat: *Moskutik Lezotira zazpi astoren gainean*. Hala ere, denetarik entzun dut: Juan Luis Guerra, Mikel Laboa... **Zer eskatzen duzu jatetxe batean bazkaltzeko edo afaltzeko?** Haragia; arraina, oso gutxitan.

**Autoan zoazenean, egiten duzu bertsotan?**

Oso gutxitan. Bertsotan, dutxan edo etxe inguruko tontorren batean egiten dut; autoan noanean, abestu egiten dut.

**Zein da gustuko duzun bertsolaria? Eta doinua?**

Sebastian Lizaso asko gustatzen zait, baina baxatuta sumatu dut azkenaldian. Gazteak oso indartsu datoz: Lujanbio, Iturriaga, Maia... Doinuei buruz, berriz, nahiko klasikoa naiz.

**Landetxea duzue etxean. Fijatzen zara beste landetxetan?**

Bai. Ez bakarrik landetxetan, baita baserrietan ere. Fijatzen naiz nola apainduta eta zainduta dauden, eta detaileren bat gustatzen bazait, argazkia ateratzen diot, geuk ere antzerako zerbait egiteko.

**San Martin feria izan da Bergaran. Bazara feriazalea?**

Ganadua eta nekazaritzako erremintak ikustea gustatzen zait, baina ez dut ohiturarik beti zerbait erosteko.



**BERGARA** Enaitz Alustiza, Bergarako Irizar berdegunean. O.E.

## www.goiena.net

**Bilduma sasoian gaude. Bildumarik egiten, faszikulurik erosten... bazabiltza?**




## biharamuna

Oier Bolibar

### Demagogia kontzeptua

Irakurri dudan artikulu baten ondorioz natorkizue demagogiaren inguruko erretorikarekin. Irakurtzen hasi orduko konturatu bainintzen artikuluaren eduki interesatu eta kutsu demagogikoaz. Baina zer da demagogia? Nondik datorkigu? Zein helburu du?

Greziar jatorria duen hitz honek *herria zuzendu, bideratu* esan nahi du, zentzu baikor edo ezkorrean, betiere demagogoak luzatutako mezu eta helburuen arabera. Demagogo bikainak izan ziren, adibidez, **Mahoma, Kristo, Hitler** eta **Gandhi**, helburu eta interes ezberdinekin, herria norabide baten zuzentzea lortu zuten.



Gaur, demagogia boterearekin lotzen dugu: gutxi batzuen intereserako egiten den informazio, balore eta iritzien manipulazio interesatua. Jokabide demagogikoari lotuak daude zintzotasun falta, itxurak egitea, informazio ezkutaketa eta zinismoa.

Hala ere, giza adimenaren konplexutasuna ikusirik, nola jakin norbaitentzat mezu demagogikoa dena bestearentzat ez denik? Nola jakin demagogikoa den zerbait kontrastatzeko dugun informazioa ere demagogia orkestratu horren lehen urratsa ez denik?

Hona bada, demagogiaren azalpen demagogikoa.

## eguraldia



MINIMOA **+11**

MAXIMOA **+23**

Astea giro egonkorrarekin hasiko dugu. Behe-hodeiak agertuko dira berriz, eta, egunean zehar, ez du guztiz jasoko.

www.euskalmet.euskadi.net





**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

**smsoinu** Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON
Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION
Herrikoiak
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermin | FERMIN
San Martzialetako alardea | SAN MARTZIAL
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)
1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu...Ansar | ANSAR
Hartu...Argentinarra | ARGEN
Hartu...Mexikarra | MEXIKO
Hartu...Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

**LOGOAK** (SMS 1)
KODEA
IKURRI4 ADARIAK MUSKARIA EGUZKILORE1
EH1 BABAK KALABERA1 EGUZKILORE2
BILBO BERAKATZAK POPATIK EGUZKILORE3

**OHARRAK**
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.